



Emmanuel-Pierre GUITTET

«Zoritxarrez,
bake prozesu bat
hutsera eraman
dezake arsenal
antiterroristak»



- **Ahantzura digitala** Internetetik desagertu nahi eta ezin
- **Kibutzak** Berdintasuna bai, baina israeldarrentzat
- **Ricardo Aronskind**, ekonomialaria «Nazionalismo zentzugabeek integrazioaren kontrako jarrera sortzen dute Latinoamerikan»
- **Literatura** Protagonista femenino berriak, emakumeek idatzitako nobeletan
- **Kutxa Bank** Biren edo hiruren arteko klub pribatua



argia


www.argia.com/multimedia

*bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean*



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



Film laburrak

Euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat bi astean behin. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.

berria



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2011ko irailaren 4a, 2.288. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Fermin Etxegoien:** «Ikusiko duzu nork irabaziko duen Euskadi Saria, Bildu Lakuara ailegatzten denean». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Ahantzura digitala.** Google, ez zaitez nirekin akordatu. GORKA BEREZIARTUA / 5

Pertsonaia

- **Emmanuel-Pierre Guittet:** «Terrorismo hitzak erabat preso gauzka». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Kibutzak.** Kolonizazioaren eta berdintasunaren artean. ANE IRAZABAL / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Irailak eraila. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Tbilisi-Iruñea.** URTZI URRUTIKOETXEA / 21
- **Hiruko txikian** Pausa. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Kataluniatik ikasgaia.** AITOR ZABALETA / 22
- **Txandan** Katiuskak. ANDONI MUJICA / 22
- **Bertso berriak** *Mittard*-can jarriak. ENEKO BILBAO ARESTI / 24

Erdiko kaiera

- **Literatura.** Emakumeak protagonista. IRATXE ESNAOLA / 25
- **Hedabideak vs. komunikabideak.** MIKEL ASURMENDI / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Ricardo Aronskind:** «Brasilek gehiago begiratu behar dio Latinoamerikari». GORKA BERSATEGI / 39
- **Kutxa Bank.** Pribatizazioarako pauso berria emango dute EAEko kutxek. DANIEL UDALAITZ / 42
- **Tolosaldeko Euskararen Semaforoa.** Blogari umoretsuak probokatzen. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Londres 2011-08: ekonomia izozten eta kaleak sutan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Ekonomiaren lerroarteak.** INMA ERREA / 50



“Ikusiko duzu nork irabaziko duen Euskadi Saria, Bildu Lakuara ailegatzen denean”

Fermin Etxegoien I
Neurona eta Zeurona

Deabruaren abokatua zen lehen.
Abokatuaren deabrua da orain.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen, *aldeanismo*tik aldenduz, unibertsaltasuna aldarrikatzen duen anti-heroi arrakastatsua!

Et et et... Bat nator, soil-soilik, “arrakastatsu” hitzarekin. Ez ni nahastu, mesedez, oraingo gazteekin. Gu Erasmus izan ginen *avant la le-ttre* (ingelesa jakin gabe).

Erasmusa ala lehen eleberria idatzi eta Espainiako Kritikaren Saria, Euskadi Saria eta abar jaso dituen espabilatua? Ez duzu lotsarik?

Lotsarik? Jota al zaude? Sariak irabaztea *goza-da* bat da, argal egotea bezalakoa; *go-za-da* bat. Gomendatzen dizut...

200 hitz baino gutxiagorekin osatuta dagoen nobela batekin sariak irabaztea, jendeari aurpegira barre egitea da, ordea. Utikan!

200 hitz, ez beti ongi antolaturik –askotan, gaizki antolaturik–, batek baino gehiagok ohartarazi didanez. Eskerrak irakurleak –milaka irakurle!– ez diren konturatu.

Esango dute berriz sariak eta koiuntura politikoa estuki loturik daudela...

Gutziz egia da; ikusiko duzu nork irabaziko duen Euskadi Saria, Bildu Lakuara ailegatzen denean (laster, beraz).

Telebista kritiko pipertua, musika aditu gatzatua... Orojakile ozpindua ala saltsa guztietako perrexila zara zu?

Lola Floresek esaten zuen moduan, sinesgarritasun piperrik gabe, “langile xalo bat besterik ez naiz”.

Langile xalo bat, ala Ekaitz Perfektuetan barrena, Gazteako uhinetan garamatzan marinela zaharra?

Pop musika arte minor bat da, edozein ergelek egin dezake kantu on bat. Pop kantu onak urteotan egiteari eustea, ordea... Segundo eta mendea gurutzatzen diren tokian behar luke Ekaitz Perfektuak.

Segundo eta mendea gurutzatzen diren tokian, erdal esaera hauxe; ofizio asko dauzkana, pobrea seguru!

Oparotasun materialaren semea naizenez gero, ez dut infernuri espero.

Ai ene, hizkuntzak erretratatzeko gaituen garaiotan, ni erdal esaerak euskaratzen... Larria al da mediku jauna?

Lasai; nire burua ezagutzeaz, pozik –*enchanté*– nago neu ere.

Zure burua hainbeste ezagutzen baduzu, esadazu egia: zuk handitan euskara teknikaria izan nahi zenuen.

Euskara teknikari guztien ama, menturaz... Tira; Xabier Amurizaren *Euskara Batuaren Bigarren Jaiotza* da bidea, zinez diotsut.

Enfin, oñatitarra bazara behintzat. Diozunez, munduko jende “soportableenetakoa”...

Aldaparik igo gabe, Oñatitik mundura irteteko... San Prudentzioko zubia zeharkatu beharra dago. Logikoki, askok nahiago izaten dute buelta-erdi eman. ■

Ahantzura digitala

Google, ez zaitez nirekin akordatu

Nork ez du inoiz egosurfing pixka bat egin Interneten? Norbere buruaren izena bilatzaile batean sartzea jende askoren zaletasuna da baina, sarritan, pantailan agertzen zaigun informazioa ez genuke mundu guztiaren esku egoterik nahi. Eta zer egin jakin gabe geratzen gara, antza denez, sareak memoria amaigabe eta ukiezina baitauka. Baina badago alternatibarik: ahantzura digitala.

GORKA BEREZIARTUA

“BETE ONDORENGO DATUAK eta berehala sortuko dugu zure erabiltzaile-kontua”. Izen-abizenak, jaioterria, sexua, bizilekua... Diskrezio gutxiko solaskidea duzu weba. Eta zuk, gainera, datu horiek denak eman,

txintik esan gabe. “Nire lagun guztiek egingen dute!”. Ez gara hasiko guraso orok inoiz errepikatu duen esaldiarekin (“zure lagun guztiek zubitik behera salto egingo balute...”), baina gaiari buelta pare bat ema-



tera gonbidatu nahi zaitugu; batere jakin gabe, enpresa askori lana errazten ari baitzara, gero beraiek publizitatez bonbarda zaitzaten.

Eta horretarako bakarrik balitz, gaitzerdi: pentsatu al duzu inoiz lanpostu bat lortzeko curriculuma bidaltzen duzularik, zu kontratatu ala ez erabaki behar duen pertsonak Interneten zer aurki dezakeen? Okerrago: pasa al zaizu burutik zu ikertzen egon litekeen poliziari zenbat errazten diozun lana, datuak sarean jartze hutsagatik? Eta kontuan izan besteek zutaz esaten dutena ere. Edozein motiborengatik albiste batean atera zarela? Buletin ofizialen batean jarri dizuten isunen bat aipatu dutela? Izena Google-en bilatzea nahikoa da kuxkuxeroren batek zure arrastoa segi dezan.

Interneten dena geratzen da erregistratuta, aspaldiko prozedura judizialestatik hasita, joan den asteburuko parrandan atera zizuten argazki negargarri horretaraino. Orain datu gehiago ematen dituzu, gainera: telefono inteligente berria baldin badaukazu, jakin piztu eta segituan hasi dela zure kokalekuari buruzko informazioa bidaltzen, inork abisatu ez dizun arren. Webgune batean sartzen zarenean ere, berehala instalatuko du atari horrek zure nabigatzailean *cookie* bat: artxibo txikiak dira, zomorrotan ezdeusak itxuraz, eta ustez zurekin sinbiosian bizi beharko luketenak, webgune erabiltzen azkarrago deskargatzeko sortu zirelako; baina gaur egun *cookie* asko erabiltzaileen gustuak arakatzeko instalatzen dira, parasitoak balira bezala.

Sarean paseatze hutsagatik ari zara, egiazki, behar baino gehiago esaten zeure buruaz. Ordenagailuak atari bat bisitatzeke zenbait datu eskaini behar ditu, hala nola,

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren erdiak baino gutxiagok zekien erakunde publiko bati edo enpresa bati eskatu ziezaiokeela berari buruzko datuak ezabatzeko "jaso ziren helbururako beharrezkoak ez direnean"

IP helbidea, erabiltzen duzun nabigatzailea eta sistema eragilea, nondik iritsi zaren webgunera... Hori dena beharrezkoa da Interneten egitura eta funtzionamendua mantentzeko, baina trukean lorratz gehiegi uzten ditu bidean. Horregatik, European IP helbidea informazio pertsonaltzat jotzen da, babestu beharrekotzat, alegia.

Baina hor dago, hain zuzen ere, auziaren iltzea: informazio esanguratsuena darabilten enpresak ez direla europarrak, AEBetakoak baizik, eta hango datu-babeserako legedia arrunt biguna da. Google, Facebook, Yahoo eta MSN elkartuta, ia 2.000 milioi lagunen informazioa kudeatzen dute eta bai, tartean (ia seguru) baita zurea ere. Beraz, jakin

nahiko duzu zer egin dezakezun Internetek zutaz gordetzen duen informazioa nolabait kontrolatu ahal izateko.

Ahaztua izateko eskubidea bai, baina...

Ez da zure kezka bakarrik. 2009an Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) egin dako inkesta baten arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan geroz eta gehiago zebiltzan buruhauste berarekin (Europar Batasuneko batez bestekotik urrun, dena den). Ikerketa berak erakusten du zenbait konturi buruzko ezjakintasuna handia dela oraindik: galderei erantzun zietenetik, erdiak baino gutxiagok zekien gure datuak ezabatzeko eska diezaiokegula erakunde publiko edo enpresa bati, "jaso ziren helbururako beharrezkoak ez direnean". Ezabatze hori eskatzeko dokumentua webgunean dauka DBEBk (<http://ttiki.com/30873>), baina problema bestelakoa izaten da maiz. Bai behintzat Hegoaldeko euskal herritarrentzat. Ezabatze-baldintzak zehazgabeak

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com



1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com



dira eta ez daude garai digitalera egokituta: noiz esan dezake Facebookek, adibidez, eman zenizkion datuek beren helburua bete dutela? Eta kontua asko korapilatzen da buletin ofizialez edo egunkarien hementerotekeez hizketan hastean; mota horretako argitalpenak erabat digitalizatu zirenetik, edonork bila dezake, Google lagun harturik, duela 20 urte nahaspilatu zintuen epai-
ketari edo operazio polizialari buruzko informazioa. Gero epaileak absolbitu zintuen arren, susmoaren arrastoa geratzen da, Internetek zutaz gordetzen duen memorian.

Tira, zuk behintzat bete duzu zeure datuak ezabatzeko eskatzen duen doku-

Lau enpresa besterik ez dira, baina Google, Yahoo, Facebook eta MSNren artean 2.000 milioi lagunen informazioa kudeatzen dute. Bai, seguraski baita zurea ere.

mentua, baita igorri ere, dagokion enpresa/erakunde horri. Hamar eguneko epea dauka erantzuteko. Erantzuten ez badu, ezezkotzat hartu beharko duzu eta orduan hasiko dira komeriak, mota honetako kasu batzuek epaitegian bukatzen baitute. 2010ean Espainiako Datu Babeserako Agentziak (AEPD) jaso zituen kexen artean, 110 kasu ahanztura digitalarekin zerikusia zuten, gehienak (98) bilatzaileekin lotutakoak; eta bilatzaileak esatean, Google esaten ari gara ia kasu guztietan; eta enpresa kaliforniarrak erantzun ohi du, bere bilatzailea ez dela ematen dituen emaitzen arduradun, Interneten dauden orrialdeetara iristea erraztu besterik ez duela egiten.



ANDRA MARI
restaurante

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



Erraldoiarekin behaztopa: duela 30 urte delitu bat egin zuen herritarrak eskubidea al dauka bilatzaileak bere iragana ahaztu dezan? Eta duela 25 urte iruzurra egin izanagatik ikertu zuten enpresa batek (nahiz eta hilabeteetara kausa artxibatu)? Google-ek Espainiako Auzitegi Nazionalean errekurtsioa aurkeztu zuen horrelako bi kasuren kontra, baita bietan irabazi ere, “forma akatsengatik”, hori bai.

Googlek eta Facebookek sinatu ez zuten karta

Bada alderik Espainiako Estatuaren eta Frantziakoaren artean materia honetan. Iazko urrian azaldu zen “*Charte du droit a l’oubli dans les sites collaboratifs et les moteurs de recherche*” izeneko agiria. Internauten “bizitza pribatua” babestea helburu hartuta, sarean jarritako datuak ezabatzeko eskubidea kontuan hartzen du kartak. Dokumentua sinatu zuten enpresek eta erakundeek konpromisoa hartu zuten euren erabiltzaileen datuak zaintzeko eta, hala nahi izanez gero, baita ezabatzeko ere. Erreklamazioak jasotzeko leihatila birtual modukoak ezartzea ere aurreikusten du kartak eta bilatzaileak gonbidatzen ditu behin saretik desagertu direnean ere, beren katxean gordetzen diren datuak ezabatzeraz.

Problema bakarra, eskua zabalik diosalegin ordez, Googlek eta Facebookek erdiko atzamarra altxa ziotela egitasmoari. Ez dezaugun konpostura gal, halere: “Datu pertsonalen babesa oinarritzko eskubidea da eta sostengua behar du, baina garrantzitsua da guretzat bestelako eskubideak babestuz egitea, hala nola, adierazpen askatasuna” esan zuen Googleko abokatu Peter Fleischerrek enpresaren jarreraz galdezka joan zitzaizkionean. Gainera, bilatzaileak beti argudiatu ahalko du garden jokatzeko duela bere erabiltzaileekin: 2009an martxan jarri zuten Google Dashboard, askok noizbait geure buruari egin diogun galderari erantzuteko asmoz: zer daki Googlek nitaz? Merezi du begirada botatzea, uste duzuna baino informazio pribatu gehiago besteren esku uzten ari zarela konturatzeko baino ez bada ere.

Aho biko ezpata

Bidasoaren alde batean enpresa handienek paso egiten dutelako, bestean lege aldetik

Googlek eta Facebookek ez dute sinatu Frantziako Estatuan datuak ezabatzeko eskubidea aitortzen duen karta, adierazpen askatasunaren kontrakoa izan daitekeela esanez

Gaia ez da ematen duen bezain sinplea; datuak ezabatzeko eskubidea era biziotsuan erabili daiteke: politikari ustelek beren historia garbitzeko, adibidez

behar bezalako babesik ez dagoelako, kontua da ahanztura digitala ez dela ondo bermatutako eskubidea. Horri gehitu behar zaio, gaia ateratzen den bakoitzean eztabaida pizten dela blogetan eta foroetan. Orain arte kasu hipotetiko batzuk esplikatzen ditugu (preskribitutako delituak buletin ofizialetan edo heme-roteketan azaltzea, adibidez), baina badira bestelakoak, zalantza handiagoak sor ditzaketanak.

1979ko otsailean zuzenbidean lizentziatutako gazte batek *La Nueva Rioja* egunkarian Espainiako Konstituzioaren kontrako artikulua publikatu zuen. José María Aznar zuen izena gazte hark eta artikuluan esaten zuen, besteak beste, Konstituzioa idatzita zegoen moduan ezin zela jakin Espainia merkatu ekonomiarantz ote zihotian ala “malkar estatifikatzaile eta sozializatzaile arriskutsuetarantz” (erran nahi baita, nolabaiteko komunismorantz). Gauza jakina da Aznarren ondorengo ibilbidea eta Espainiako Gobernura iritsi zenez geroztik Konstituzioa bihurtu zela bere ikur nagusi, ia santifikatu. Baina, Interneti esker, beti aurpegiaratu ahal izan zaio, gutxienez, txaketa konstituzionalari etiketa kendu berria diola.

Eta Aznarrek ahanztura digitalaren eskubidea baliatu izan balu artikulua horiek saretik ezabatzeko?

Gaia ez da ematen duen bezain sinplea eta erabilera biziotsuetarako ere eman dezake: ustelkeria kasuetan inplikaturako politikariek beren irudia garbitzeko, adibidez; edo, tartean deliturik egon gabe ere, noizbait emandako iritziak ezpainak jan beharrean zauzkanean, “ezabatu” botoiari sakatu eta inoiz halakorik esan izan ez bazenu bezala jokatzeke. Gaizki erabiliz gero eta muturreraino joanda, Internet bihur liteke George Orwellen 1984ko Egiaren Ministerioaren antzeko zerbait: iragana etengabe itxuraldatzen duen leku bat, orainak agintzen dituen interesen arabera betiere.

Norena da informazioa?

Beraz galdera da: nork dauka informazioaren bat saretik desagerrarazteko eskubidea? Besteek norberaz diotena kentzea korapilatsua da, ikusi dugun moduan. Aldiz, norbe-

rak borondatez kargatu duen edozer ezabatzeke ahalmena eduki beharko luke (sare sozialetan edo blogetan idatzitako testuak, igotako argazkiak...).

Batzuetan ez da zaila hori egitea baina Facebookek, adibidez, ez ditu gauzak gehiegi errazten. Sare sozial hori erabili baduzu eta momentu jakin batean zure kontua ezabatzen saiatu bazara, jakingo duzu zertaz ari garen. Kontua desaktibatzeke aukera erraz antzean aurkituko duzu, baina adi, “desaktibatuta” jartzen baitu eta ez “ezabatu”. Horrek esan nahi du, behin desaktibatuta inork ezingo zaituela Facebooken aurkitu, ezingo dituela zure argazkiak ikusi edo ezingo dizula mezurik bidali. Baina nahikoa da berriz zure kontuan sartzea, ikusteko ordu-ra arte egin duzun guztia gordeta daukatela oraindik. Eta gordeta edukiko dute, *ez duzulako baimenik eman ezabatzeke*. Sartzea erraza da, irtetea ez hainbeste, ez dagoelako modurik kontu barrutik norberaren profila deuseztatzeko. Horrek ez du esan nahi ezabatu ezin denik, ordea. Aski duzu <http://ttiki.com/30883> helbidean sartzea: zure profila bi astez desaktibatuta egongo da eta tarte horretan Facebook ezertarako erabiltzen ez baduzu, betirako joango dira han esan eta egin dituzunak oro zakarrontzira.

Mekanismoak garbi erakusten du ahanztura digitala negozio-eredu baten etsaia dela: informazio pribatuaren kudeaketari esker etekinak ateratzen dituzten enpresen anatema bihur daiteke, erabiltzaileak modu masiboan euren datuez arduratzen hasten badira. Googlek eta Facebookek ahanztura digitalaren aldeko frantziar karta ez sinatzea, ez da adierazpen askatasunaren alde egindako hautua, beren negozio ereduaren oinarria zaintzeko hartutako erabakia baizik. Bi enpresa horiek, Yahoo, MySpace, Twitter edo MSN antzekoak dira gauza batean behintzat: produktua doan eskaintzen dizutela diote, baina funtsean zu zaituzte produktu bihurtzen; bezeroak arrantzatzeko daukaten beita ematen diezun informazioa da.

Eta hor ez dago eztabaidarik, eskubidea daukagu datu horiek nahi dugunean ezabatzeke. Eskubidea daukagu gure informazioa guk kudeatzeko. Eta badira horretarako aukera hobeak eskaintzen dituzten tresnak, gainera; bai behintzat, sare sozialetan, Facebook eta Twitterren alternatiba gisa sortu diren Diaspora eta Status.net, adibidez. Erabiltzen ikastea da hurrengo pausoa. Bilatzaile handien alternatibak aurkitzea eta haiekin daukagun dependentzia murriztea ordea, beste errota bateko ura da. ■



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

DANTZA PLAZA

Irailak 9 eta 16, Espainia plaza, 20:00.

MAGIALDIA

50 eszenatoki, 40 magialari eta 70 ikuskizun

Irailaren 12tik 18ra.

GASTEIZ GARAIDEA

Artium, Montehermoso eta Trayecto galeria bisitatuko dira.

Montehermosotik abiatuta. Bukaeran ardo kopa bat.

Irailak 15. 18:00-19:00.

Dohainik. Erreserba: 945209020

ERDI AROKO X. AZOKA

Irailaren 23tik 25era. Hirigune historikoa

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

• PROGRAMA ARRUNTA

- Herritarrentzat

• PROGRAMA BEREZIA

- Aisialdiko begiraleentzat

- Eskola kiroleko entrenatzaile edo begiraleentzat

- Aurrekoetarako ikasten ari direnentzat

- Gurasoentzat

- Merkatarientzat (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)

MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari bazara, aspaldian ikasi bazenuen eta ez duzu norekin hitz egin...

Hona hemen aukera ezin hobeak: Mintzalaguna. Iaz Gasteizen 300 lagun baino gehiagok parte hartu zuten.

Urritik aurrera, animatuko al zara?

Baldintza bakarra, 6. urratetik gorako maila izatea.

Bestalde, mintzalaguntzaile aritzeko aukera ere baduzu.

Tel. 692730444

mintzalaguna@geugasteiz.com

GIZARTE ETXEETAKO EUSKARAZKO JARDUERAK

• Garaiz zabilza zozketarik gabeko jardueretan izena emateko.

**Maite duzun hura
Euskaraz!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Emmanuel-Pierre Guittet

«Terrorismo hitzak erabat preso gauzka»

“Gure hitzak, esan berriz esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

GAL-en aurretik hasi zen gerra zikina.

Gerra zikina demokratikoa ez den erregimen baten pean hasten da, frankismoan. Inor ez da harritzen erregimen autoritario bat lege kanpoko jardueretan hasten denean, baina bere burua demokratikotzat duen sistema batek hala jokatzeari nahi eta nahi ez da problematiko. Gerra zikina GAL-en aurretik hasi zela azpimarratzeak genealogia bat erakusten du. Herentzian jasotako jokamolde bat dago, kontramatxinadak sortutako *savoirfaire* klasiko bat, eta pertsona zenbait prest daude horri zukua ateratzeko. Trantsizio demokratikoak denbora eskatzen du, eta agintari espainolek kontrakoa ozen eta sendo esan arren, oso nekeza izan da. Erakunde polizial, militar eta informazio institutuak arras gutxi aldatu dira trantsizioan. Poliziari erreparatzen badiogu, 1994an baizik ez da egin ordena mantentzeari buruzko legearen erreforma. Zer esan nahi duen horrek? Ordura arte, Espainiako polizia zerbitzuek lege frankistekin funtzionatu dutela. Garbi dago, erregimena aldatu arren, frankismoeko eragileek ez zutela zertan pentsaera aldatu. Nolatan? Trantsizioak krisi uneak direlako, ondorio ziurrik gabeko garai lausoak, eta funtsean, GAL testuinguru orokor horren produktu baizik ez da.

Frankismorik gabe GALik ez litzatekeela sortuko diozu?

Ez baitezpada, edozein informazio zerbitzu edo polizientzat beti delako tentagarria lege kanpo ibiltzea. Kriminalitatearen edo terrorismoaren aurka ari den edozein zerbitzuek dauka “guk ere hala jokatu bageneza” pentsatzeko joera mimetikoa: “Guk zergatik errespetatu behar ditugu legeak eta beraiek ez?”. Hori gaur egun ere existitzen da. Nazioarteko eskalan,

terrorismoaren aurkako borrokan, garbi ikusten da legeak traba egiten duenean gainetik salto egiten dela inolako lotsa eta eskrupulurik gabe. Hori hala, erregimen frankistak asko lagundu du ETaren aurkako borrokan ETA-ren metodo berak erabili zitezkeen ustea sendotu eta errotzen. Dena zen odolkiak ordaintan, begia begi truk, bomba bonbaren kontra, erailketa erailketaren aurka, “beraiek egin badezakete, guk ere bai”. Azkenerako, demokrazia-
ren izaera terrorismoaren aurkako borrokaren bidez frogatzen duen sofismo modukoa sortzen da, guztiz antidemokratikoa, baina orduan funtzionatzeaz gain, oraindik ere European eta munduan funtzionatzen duena.

Dena haize-alde, dena eskura, eta hala ere perfekzioetik urrun ibili den erakundea da GAL. Zergatik?

GALen aurpegi batzuk antiterrorismoaren *txapuz* gorenak dira. GALen zenbait ekintzailek komikietako hiltzaile dorpeen antza daukate. Baina GAL hori baino gehiago da, gorago gorden dauden egitura informatibo eta finantzarioak, eta horiek ez dute deus txapuzerorik, erregimen zaharraren herentzia zuzena dira. Horregatik, logistika eta ekintzen arteko bereizketa, norbere burua babestu beharretik dator. Estalki gisa erabiltzen den erakundea da

Nortasun agiria

1976ko ekainaren 19an sortu zen Angers-en (Frantzia). Zientzia Politikoetan doktore, konferentzia maisua da Manchester-eko unibertsitatean (Ingalaterra). Biolentzia politikoa, antiterrorismoa, eta Europako segurtasun politikak dira bere ikerketa gaiak. Hori hala, Euskal Herriarekin lotura zuzen-zuzena duen *Antiterrorisme clandestin, antiterrorisme officiel* (Athéna éditions, 2010) liburua kaleratu du.



"Terrorismoaren aurkako gerra ez da asmakuntza estatubatuarra, asmakuntza europarra baizik"

GAL, ekintza politikoaren jatorrian dauden erakunde politikoak oihaltzeko modua eskaintzen duena. Felipe Gonzalezen azken adierazpenak irakurtzen badituzu, oraindik ere dio ez daukatela errurik, "ez dugu ezer egin, ez dakugu kulparik" da argumentua. GALen funtzionamenduari buruzko amnesia orokorra gailentzen ari den honetan, "ziur zaudete?" galdetuko nieke nik.

Felipe Gonzalezek berak erantzun dizu: "ETA-ren kupula zartatu edo ez erabaki behar izan nuen. Ezezkoa agindu nuen. Ez dakit erabaki zuzena izan zen".

Hori, Frantzia eta Espainiaren arteko harremanez harago, Europar Batasunaren sare politikoaren "magiaren" parte da. Pixkanaka-pixkanaka babes geruza bat eraiki dute. Berdin da terrorismo hitzak zer esan nahi duen, baina terrorismoaren aurka borrokatzen gareno gure aldarre demokratikoa erakusten dugu. Alkimia politiko bat sortzen dugu, eskema guztiak irauli, eta Felipe Gonzalez bezalako eragileei eskuak garbitzeko modua eskaintzen diegu. Okerrena esan dezake, une batean botoi bati eman eta denak hiltzeko aukera izan zuela, eta ez da ezer gertatzen. Ez zuelako egin txalotzea nahi du? Ez dakit non dagoen elokuentzia politikoa. Miserablekeria iruditzen zait, ez argumentu demokratiko bat.

Europar Batasunaren "magia" aspalditik dator. 1985ean sartu zen Espainia Europar Batasunean, GALen aro odoltsuenean.

Dena dago lotuta eta denak egiten du bat. GAL ulertzeko batetik etapa, eragile, ekintza eta aro bakoitza bereizi behar da, baina bestetik dena osotasun bat dela ulertu. Ez da soilik espainiar eta frantsesen arteko arazoa, problema europarra baizik. Jakina Europak begiak itxi dituela, jakina armairuan sartutako hilotza dela. Zehatz eta zorrotz aztertuko bagenu gertatu dena, ezinbestean onartu behar genuke terrorismoaren aurkako gerra ez dela asmakuntza estatubatuarra, asmakuntza europarra baizik. Zuzenbidezko eragozpen moral eta etiko guztietatik askatu gara ikusi nahi ez gurena erreproduzitzeko.

Frantzia ez dago eskandalutik salbu.

Frantzia makurtu da, baina ez soilik GALen eraginez. Ekialde Hurbileko biolentzia politikoa Frantziaren aurka egiten du, lehen gobernu sozialista agertzen da Frantzian, eta hauteskunde kanpaina hartako diskurtso kontserbadorea

gurdi sobietarrek Eliseoetako zelaia inbaditze-ko beldurrean oinarritzen da. Testuinguru horretan, gobernu sozialistak segurtasun arazo-en aurrean eraginkorki jokatzeko badakiela frogatu behar du, eta une batean aukera egingo du. Ez nuke esango espainiar diskurtsoarekin erabat aliatzen direnik, baina esentziarekin gertzen dira, euskal komunitateak larrutik ordainduko duen asilo politikoari buruzko legeak gogortuz. Harago joanez, ez da ahaztu behar GAL norbanakoz osatutako banda dela, erakunde eta ministerio batzuen baitako jendea, bere buruari legez kanpo jarduteko lizentzia eman diona. Frantziar argitzeke dagoen kontua da oraindik, eta argitzekotan, Piriñoetako harreman polizialen mikrokosmosari erreparatu behar zaio. Nire ustez zer gertatu zen? Polizia frantses batzuk polizia espainiar batzuen lagun egin zirela eta harreman sare horiek egonkortu zituela denborak. Ez dut uste hori baino konplikatuagoa denik hastapena, horri buruzko Frantziaren isiltasuna biziki deigarria eta mingarria zaidan arren. Hori esanik, ez nago ziur mugaz bi aldeko poliziak hain ongi konpontzen direnik. Dekoratu bat dago, Europar Batasuna izenekoa, kooperatzera derrigortzen duena, baina interakzioan ari diren pertsonen begiratzeko gero apustu egingo nuke oraindik ere zalantzak daudela. Oraindik ere 80ko hamarkadako begiradarekin so egiten zaio Espainiako poliziari: “Ziur gaude benetan profesionalak direla?”.

Batasunaren ilegalizazioaz edo nazionalitate frantsesa duten biztanleen aurkako euroaginduez ari zara?

Aurore Martinen kasuan ikusten da autoritate frantsesak ez daudela oso konbentzita, Batasuna oraindik legala da Frantziako Estatuan... Mugak oraindik funtzionatzen du. Porotsua izan daiteke zenbait ekintzentzat, baina eraginkorra da krika-krakatsua den diplomazia mota

“Felipe Gonzálezek esan dezake une batean botoi bati eman eta denak hiltzeko aukera izan zuela, eta ez da ezer gertatzen. Ez zuelako egin txalotzea nahi du?”

baterako. Frantses eta espainolen arteko harreman diplomatikoek “blin-blin” efektua daukate, oso alfonbra gorri eta gailur internazional zaleak dira, baina errealitate mikrosociologikoei garbi erakusten dute zuhurtzia dela nagusi, zalantza eta erresistentzia anitz gertatzen direla oraindik.

Zalantza eta erresistentzia hainbestekoak badi-ra, Frantziak ukatu zitzakeen euroaginduak?

Euroagindua azkartasunaren gainean eraikita dago, printzipio juridikoen muga-mugan.

Euroaginduen funtsa prozedura azkartzea da, mamiari erreparatzeko betarik izan ez dezagun. Aurore Martinek bere auzi pertsonala testuinguru zabalagoan kokatu du, eztabaida plaza publikoan jarritz, eta horrek asko moteltzen du azkartasunaren gainean oinarritutako prozedura.

Horrek, ebazpen judizialez harago, ondorio diplomatiko interesgarriak sortzen ditu. Zergatik Frantziak ez duen euroagindua ukatu? 80ko hamarkadatik honako politika nazional eta internazional guztien hitz gakoak “terrorismoa” delako. Terrorismo hitzak erabat preso gauzka. Nahiz eta epaileak legea ahal bezain justuen dantzatzen saiatu, ideologia politiko mota batek baldintzatuta daude. Inork ez du “terrorista bat askatu duzu” entzun nahi. Terroristak eta bortxatzaileak izenik ez duten triskantzen irudi bihurtu dira, gizakiak ez diren pertsonatzat dauzkagu, eta ikusi nahi ez ditugunez, ukatzen ditugu, baztertzen, zokoratzen. Klima horrek informatzen du gure gizartea, eta beldur horrek blokeatzen du ausardia politiko oro.

Ausardia politikoa blokeatua, Frantziak gatazkaz desinteresatzeko duen joera... Ez dira premisarik onenak bake prozesu bati ekiteko.

Bake prozesu bat prozesu politiko bat da eta ez du informazio prozesu eta prozesu polizial eta judizialen denboretan funtzionatzen. Zorritxa-

Pamiela argitaletxeak,
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA


XI. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaltzeko eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea

☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: www.pamiela.com





AZKEN HITZA

Zintzotasun intelektuala

“Aktiboa naiz, ez aktibista. Hitza libre eta zehatz darabilt, eta horrek arazoak dakartzatza hain gai arantzatsu, konplexu eta arriskutsuen inguruan lan eginez gero. Nire ikasleek begi biak arranzpalo begiratzen didate elkarrizketa klandestinoak aldarrikatzen ditudanean, baina beti esaten diet errazagoa dela IRAko edo ETAko kide batekin elkarrizketa lortzea Ingalaterrako erreginarekin hitzordua lotzea baino. Gainera, ez da erraztasun kontua soilik, zintzotasun intelektuala ere bada. Zerbait ulertu eta horri buruz idatzi nahi baduzu, eragileak entzun eta ezagutu behar dituzu”.

rrer, bake prozesu batek huts egin dezake agenda desberdin horiek bat ez datozelako. Uneotako klima konponbiderako egokia dela dirudi, baina ez da ahan-tzi behar Espainiako Estatuaren arsenal antiterroristak hortxe jarraitzen duela. Pentsa, lehendakaria bera harrapatu zuten lege antiterroristekin. Hori ikusita, zeintzuk izan daitezke bake prozesu bat bultzatzeko eragileak, EAEko agintari goren ere legearen mehatxupearan badago? Prozesua egongo bada, eragile klandestinoekin ere elkartu behar da, eta lege horiek sekulako traba dira. Irlanda iparraldeko kasua hartzen badugu, 20 urtez landu da prozesua, akordio sekretu eta klandestino anitzekin, eta hori bera oso arriskutsua da gatazkaren konponbiderako zer edo zer egin nahi lukeen edozein eragilerentzat. Baliteke prozesua porrotera kondenatua egotea lege arsenal horregatik soilik. Arsenal antiterrorista hori engranaje efektu bat da, erabat mekanikoa, eta behin aurrera eginda ez dago gibelera itzultzetik. Lege antiterroristak sortu baditugu, orain ezin ditugu ezabatu, derrigortuta gaude eurekin jokatzera. Atzamarra engranajearen sartuko dugu, harrapatuta geratuko zaigunean min izugarria sentituko dugu, baina ezingo dugu atzera egin.

Zer gertatzen da bataila politiko militararekin batera garatu den gerra semantikoarekin?

Zer geratzen zaigu terrorismo hitzari buruzko liburu bat idatzi nahi badugu terrorista hitza aipatu gabe? Perifrasedak dauzkagu, baina perifrasedak ez dute funtzionatzen mezu argia ukan nahi duen inongo eragile politikorentzat. Zoritarrez, ez dut uste hainbeste hitz dauzkagunik terrorista berba saihesteko, ez baita kontzeptu bat, politikoki oso indartsua den labeldun hitza baizik. Oso zaila da hitz horretatik erabat askatzen, behin eransten dizutenean zure parte bihurtzen da, eta hitz horri aurre egiteko ere eragile politiko oso ausartak beharko dira. Irlanda iparraldean gertatu dena aztertuz gero, terrorismo hitzaren mugatzea jokoan egon den auzia izan da alde bietako eragileentzat, baina dagoneko ezinezkoa da hitza batere ez erabiltzea.

Hainbeste aldatu dute mundua 2001eko irailaren 11ko atentatuak?

Politika egiteko modu bare guztiak erabat hipotekatu dituzte. Errotik aldatu da politikare-

kiko genuen harremana, Euro-par Batasunean terrorismoaren aurkako borroka itsuak lehendik existitzen ziren arren. Ondorio dramatikoak izan ditu politika egiteak eta pentsatzeak esan nahi duenaren gainean, eragile politiko izateak esan nahi duenaren gainean, eta batez ere, demokraziaren esanahiaren gainean. Zer esan nahi du orain demokraziak? Gure buruari ez diogu galdetu ere egiten. Gizarteak nola funtzionatzen duen ulertu nahi badugu ez ditugu alfonbra gorriak aztertu behar, zakarrontziak arakatu behar dira: zer botatzen dugun, zer beldur garen. Eta egun, terrorismoa deitzen dutenak gaitu ikaratzen. Horrek asko esaten du etorkizunaz espero dezakegunari buruz, bisatuen politikari buruz, mugikortasunari buruz, hiritarra izatearen esangurari buruz. Izuarekiko aferrismo ideologikoa mantentzen jakin duten beldur saltzaile eraginkor asko dauzkagu bazterretan. Horri sarraskien irudiak gehitzen badizkiegu, pilaketa bat gertatzen da, eta hiritar mesfidatienak ere bitan pentsatu behar du diskurtso horri iskin egiteko. Txitean-pitean, aireportuak lege antiterroristen ikur goren bihurtu dituzte, eta gaur egun, herritar izateak aurrez susmagarri izatea esan nahi du.

Funtsean, GAlen existentzia justifikatzen zuen diskurtsoak justifikatzen du egungo munduaren martxa.

Bai, eta hori da agintari espainiarren benetako garaipena. Ez dakit beren beregi bilatutako zerbait den, baina horri esker ETArek aurkako borrokaren urte luzeetako etekinak onartzen zaizkie. Hastapenean, espainolei ez zitzairen terrorismoa interesatzen, terrorismo hitza ETArri eransteak zituen onurez jabetu ziren arte. Lotura horrek ahalbidetu du “ETArek aurka denak balio du” diskurtsoaren garaipena. Alde horretatik, espainiarrek irabazi dute, baina segur aski okerrerako, beraiek ere lege antiterroristen beldur pilaketa horrekin bizi beharko dutelako, eta horrek gizarteari arnasa hartzea eragozten diolako. Ez dakigu oraindik zehazki zeintzuk diren ondorio horiek, ez dakigu zer esan nahi duten. Dakiguna da horiekin bizi beharko dugula, preso. ■

argia.com Elkarrizketaren bideoa ikusgai duzu gure webgunean.

Kolonizazioaren eta berdintasunaren artean

Historiako mugimendu komunal ezagunenetakoa osatzen dute kibutzek. Amets sozialistaren adierazle, Israelen sinbolo ia sakratua izan dira luzaroan, elite militarren, intelektualaren eta politikoaren sehaska. Egun, pribatizazio eta gainbehera prozesuak bizi dituzte.

ANE IRAZABAL

Argazkiak: Sergio Yahni

Jerusalemetik hurbil dagoen Tzora kibutzean, 1948an lehen harria jarri zuteneko margolana harro erakusten du Ella Bargaik. Belengo Deishe iheslarien gunean berriz, urte berean galdu zuen etxeko giltza eskuan du Um Yusefek. Toki berbera aldarrikatzen dute bi emakumeek. Lehenak, azken 63 urteetan bizileku izan duen kibutza; bigarrenak, Dayr Aban jaioterri suntsitua.

Ez da inondik inora halako adibide bakarra. Israel-Palestina auziaren bilakaera arakatzuz gero, kibutz mugimenduaren garapena eta Palestinako errefuxiatuen arazoa kausa-ondorio gisa agertzen dira maiz, batez ere 1948ko gerraren ondotik. Izan ere, kibutzak funtsezko erreminta izan ziren Israelgo Estatuaren sorrera ahalbidetzeko. 1909an Errusiatik joandako etorkinek Degania Alef lehen elkarteak ezarri zutenetik, Palestina historikoaren okupazioa izan zuen mugimenduak oinarri. Ez zen lehen etorkin oldea izan, ezta handiena ere. Kibutznikek ez zuten inoiz populazioaren %4 gainditu, baina Palestinan juduentzako aberri sozialista ezartzeko proiektu aitzindaria abiarazi zuten. Sionismoak eta sozialismoak bikote banaezina osatzen zutela irizten zioten. Kontraesanik ez, lehenengo kideen iritziz: “2000 urtetako diasporaren ostean, juduentzako estatu bat eraikitzeko eskubidea aldarrikatu genuen, eta kibutzen bidez, proiektu hori sozialista ere izan zitekeela ziur geunden”, adierazi du Tzorako fundatzaile Uri Bargaik.

Berdintasuna barruan, kolonizazioa kanpoan

“XX. mende hasierako kolonoak izan ziren kibutznikak, baina 1948ko Israelgo Estatuaren aldarrikapenak, egungo kolonoek eskuratu ez duten legaltasuna eskaini zien”. Gisa horretan azaltzen du Alberto Pradillak kibutz

mugimenduaren izaera, *El Judío Errado* liburuan. Hain zuzen ere, elite judu ashkenazien zati batek –Europa erdialde eta ekialde jatorrikoa– nekazaritzan oinarrituriko elkarte kolektibo isolatuak sortu zituen, bertan bizi ziren palestinarren existentzia saihestuz. “Berdintasuna bai, baina beraien artean. Guretzat, lurra okupatzea eta gu kanporatzea helburu zuten beste edozein sionista bezalakoak ziren”, diote Mohammad Al-Afandi eta Um Yusef senar-emazte errefuxiatu palestinarrek.

Mendebaldeko kulturaren egin ohi diren interpretazio nahasien kontra, kibutznikek ez dute mugimenduaren izaera bakezalea predikatzen. Areago, Palestina historikoaren kolonizazioan izan zuten protagonismoa aldarrikatzen dute. Komunitate gehienak 1948 aurretik ezarri



Irudian, Jerusalemetik hurbil dagoen Tzora kibutza. Kontraesanik handiena mugimenduaren beraren esentzian dagoela irizten dio askok: nola ezkondu okupazioa eta berdintasuna?



"Gazte idealistak ginen, uste baikenuen estatu judua eraikitzeke, lurra autogestionatzeko gai izan behar genuela"

ELLA BARGAI, KIBUTZEKO KIDEA

baziren ere, lurraldea errebindikatzeko asentamendu garrantzitsu bilakatu ziren kibutzak lehen gerra arabiar-israeldarrean. "Toki estrategikoetan ezartzen gintuzten, batez ere mendi magaletan. Helburua zen eremua kontrolatzea eta hutsik geratzen ziren lurrak lantzen hastea", adierazi du Yair Tzabanek, 18 urte zituela Tzora kibutza ezarri zuteneko garaia gogoratuz. "Ez zara lur eremu baten jabe egiten, lur horretan finkatu eta sailak ereiten hasten zaren arte", gaineratu du Ella Bargaik.

Biak izan ziren Palmaj milizia juduko soldadu, gerra garaian. "Palmaja ezingo litzateke kibutzak gabe garatu, ezta kibutzak Palmajeko kiderik gabe ere", nabarmendu du Tzabanek. Izan ere, eskola amaitu berri zuten soldadu judu gazteek, kibutzak erabili zituzten milizia autofinantzatzeko: "Hilabetero, Palmajeko kideek bi astez egiten zuten lan kibutzetan, eta beste bi astez gerrarako entrenatzen ziren", azaldu digu. Gudak aurrera egin ahala, zenbait kide miliziatik liberatu zituzten, armada juduek suntsitutako herrixka palestinarretako hondarretan kibutz egonkorrak ezar zituzten.

"Dayr Abango lurretan, adibidez, Tzora kibutza, Marchseya, Beyt Shemesh eta Yish'i herriak eraiki zituzten. Bertako biztanleak, aldiz, Hebronera edo Belenera desplazatu ziren", dio gaian asko ikertua den Walid Khalidi historialariak. Adibide berdintsuak topa daitezke 1948an deuseztatutako 600 herrixka arabiarren historia aztertuz gero. Ilan Pappé Israelgo historialaria harago doa, eta palestinarren kontrako "garbiketa etnikoa" eta "kanporaketa" leporatzen dizkio Israeli.

"Garbiketa berdea"

Palestinako iheslarien eskubideen alde lan egiten duen Akram Salhab-en iritziz, kibutz mugimendua aztertzean bada alboratu ezin daitekeen prozesu bat, "garbiketa berdea" hitzekin definitzen duena: "Israelgo Estatua sortu zenean, gerran suntsitutako 600 herrixka palestinarren erdia eskuratu zituen Juduen Funts Nazionalak, eta geroztik, 240 milioi zuhaitz landatu ditu, gehienak pinuak". Sionismoak zerotik hasteko zuen nahia erakusten du horrek, Salhaben hitzetan: "Paisaiaren eraldaketa fisikoak ez zuen flora autoktonoa bakarrik suntsitu, ordura arteko historia ere ezkutatu zuen. Basoak landatzea, lurraldea erreklamatzeko eta kultura berri bat ezartzeko modu eraginkorra bilakatu zen estatu jaioberriarentzat".



"Berdintasuna bai, baina beraien artean. Guretzat, lurrak okupatzea eta gu kanporatzea helburu zuten beste edozein sionista bezalakoak ziren"

UM YUSEF, ERREFUXIATU PALESTINARRA

Kibutz mugimenduak erantzukizun zuzena izan zuen pinuak landatzeko prozesuan, elite ashkenaziek hasieratik eman nahi izan baitzioten Europako paisaiaren itxura "agindutako lurrari". Yair Tzabanek harrotasunez deskribatu du 1959an beste kide batzuekin kibutzaren inguruan landatu zuen basoa, eta "egun, natura-parke ederra" dela gaineratu digu. Um Yusef eta Haseba Um Mohamad ahizpek, aldiz, tristuraz gogoratzen dute 1980ko hamarkadan Dayr Aban bisitatu zuten azken aldia: "Pinuz inguratu zuten herria, eta hondarren artean, gure etxeetako arrastoak eta olibondoak nekez topa zitezkeen".

Hala ikusten du Salhabek gatazkaren sinbologia: "Olibondoek eta pinuek ezinbesteko rola jokatzen dute Palestinako eta Israelgo narratiba nazionala eraikitzerakoan. Juduen zuhaitza pinua da, eta palestinarren ikurra, olibondoa. Biak ala biak zeharo desberdinak dira, bai kulturalki, bai laborantzaren ikuspuntutik".

Nekazaritza elkarre komunitario gisa egituratu ziren kibutzak hastapenetatik. Ideologia sozia-

Nekazaritza eredu "moderno"

Nekazaritza elkarre komunitario gisa egituratu ziren kibutzak hastapenetatik. Ideologia sozia-

listari eta sionistari jarraiki, gizar-
te antolaketa kolektiboa, batzar
bidezko funtzionamendua eta
kide guztien arteko berdintasuna
bermatzea ziren helburuak.
“Gazte idealistak ginen, uste bai-
kenuen estatu judua eraikitze-
ko, lurra autogestionatzeko gai izan
behar genuela”. Hala azaldu du
Ella Bargaik. Uri, senarra, Tzora-
ko lehen idazkari nagusia izan
zen: “Ez esplotatzaile, ez esplota-
tu, hori zen gure lema”.

Sozialismoaren doktrina jarrai-
tuz, nekazaritza eredu berri bat
ezarri zuten kibutznikek, aurreko
“eredu feudala” desegin eta tek-
nikak modernizatu nahi zituen.
“Lanketa tradizionala ordezk-
tuz, aitzindariak izan ginen lurren
produktibitatea handitzeko
metodo berriak ezartzen”, dio
Tzabanek, kibutz mugimendua-
ren ekarpeni buruz.

Salhaben ustez, ordea, kibu-
tzen izaera koloniala ezkututzen
du ikuspuntu erromantiko
horrek: “Kolonialismo eredu moderno
da sionismoa, eta proiektu horretan
etekinak lortzeko erreminta besterik
ez da lurra. Interes ekonomikoa
gailendu zen ereduan, ‘guk, indige-
nek baino hobeto egin dezakegu’
bilakatu zen lema”. Sistema horrek,
bertako biztanleek natura-baliabideekin
zuten oreka apurtu zuelakoan dago
Salhab. Um Yusef ere ados dago:
“Palestinarrak lurrarekin dugun
lotura, ustiapen ekonomikoa baino
sakonagoa da, Ama Lurrarekiko
harremanean oinarritzen baita
gure kultura. Dabke dantza, adi-
bidez, naturaren erritmoei eskainitako
omenaldia da”.

Kontraesanak kudeatuz

Israelgo umerik kuttunenak izan ziren kibu-



**“Juduak herrialde arabiarretatik
zetozen eta Israelgo arabiarrek
kontratatzeari ekin genion, eta
gure ideologiaren arabera,
esplotatzaile bilakatu ginen”**

YAIR TZABAN, KIBUTZEKO KIDEA

tzak, bereziki, Mapai alderdia
boterean egon zen bitartean.
Gerraren arrastoen gainean
sortu zen herriaren espirtua
eraikitzen lagundu zuten, eta
elite militarren, politikoaren
eta intelektualaren sehaska
bihurtu ziren. 1970eko hamar-
kadan aldiz, gainbehera hasi
zen, batik bat alderdi laborista-
ren hegemonia amaitu zenean.
Estatuaren diru-laguntzak
murriztu eta belaunaldi berriek
hirietara egin zuten hanka.
Kolpe latza hartu zuten kibu-
tzek, eta kapitalismoa eta prib-
atizazioa besarkatzen hasi ziren
gehienak. Yair Tzabanen iritziz,
kontraesanak agerian geratzen
hasi zitzaizkion mugimenduari:
“Juduak herrialde arabiarretatik
zetozen eta Israelgo arabiarrek
kontratatzeari ekin genion, eta
gure ideologiaren arabera,
esplotatzaile bilakatu ginen”.
Segregazioa begi-bistakoa egin
zen kibutzetan, eta nabarmen

geratu zen sionismoa sozialismoa baino
indartsuagoa zela.

Hori dela-eta, kontraesanik handiena
mugimenduaren beraren esentzian dagoela
irizten dio askok: nola ezkondu okupazioa
eta berdintasuna? “Kibutzak mitifikatzeko
joera izan zuen ezkerrek luzaroan, Israel
babesterakoan aparteko egitasmo sozialista
defendatzen ari zela uste baitzuen”, azaldu
du Salhabek. Ospe aurrerakoia eman zioten
kibutzek sionismoari, eta ondorioz, amets
sozialista kosta ahala kosta justifikatu zuten
askok, juduek bere-beregi eratu zituzten irlak
zirela onartu gabe. ■

argia.com Argazki gehiagorekin osatutako
galeria ikusgai duzu gure webgunean.



**INDOOR
KARTING**

- Haurrentzat eta ezinduentzat egokitutako kart-ak
- Pista alokatzeko aukera
- Taldeentzako aktibitateak
- Deskontu bereziak

© 685 722 119

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa (Gipuzkoa)

www.tolosaindoorkarting.com



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

ZER ERRAN ZION AZERIAK
ERBIARI ?



HAGO TRANKIL,
NI GUZTIZ
ERBIBOROA
NAUK ...

ETA ZER ERANTZUN ERBIAK ?

EZ ENI IRRI
EGINARAZ
OTOI,
EZPAINA
EBAKIA
ZEUKANAT
ETA ...



TTAKUN (H)ERRENKA

Irailak eraila

S

*ei Personaggi in cerca
d'autore (Sei pertso-
naia egile baten bila)*

antzezlan sortu zuen

Luigi Pirandellok. Lan

horretan, izenburuak esaten duen bezala, egile baten bila dabilen sei pertsonaia topatuko ditugu. Ez da hori nik dudana arazoa. Ez dut egilearen bila aritu beharrik. Nik nire egilea ezagutzen dut, ez bakarrik bere liburuak. Uste duena baino askoz hobeto, gainera: Beñat Sarasola (Donostia, 1984), olerkaria eta literatur kritikaria. Filosofian lizentziaduna. Literatur Teoria eta Literatura Konparatua ikasten ari da Universitat de Barcelonan. Euskaraz bi poema-liburu argitaratu ditu eta Philip Rothen *Nemesis* liburu euskaratu du. Wikipedian aurkitu dut hari buruzko informazioa. Beraz, bada norbait. Hori uste du berak. Bere “ADN literarioa” *Alea* liburuan antzeman nion. “Poztu egin naiz zaila dela esan didatenean” esan zuen aurkezpenean. Hori duk eta! “Posible da berri-tzailea den zerbait idaztea? Bukatu al da abangoardia? Posible da politikoki eraldatzailea den proiektu bat eraikitzea?”, liburuarekin galdera batzuei erantzun nahi izan diela ere azaldu zuen. Ez dut nik ondo ikusten bere burua. Lepo gainean ez, behintzat. Hondartzan, beharbada. Kazetari Berria Rikardo Arregi saria jaso zuen iaz. Eta orain, ARGIA astekarian, *Ttakun (h)errenka* sailean idazten dituenak (alajaina, izen hori jarri zionak hanka baino beste zerbait gehiago behar zuen herren), artikulua irakurrienen zerrendan azaltzen dira Sarasolarenak, oso gustura eta interes handiz irakurtzen omen dizkiote, eta noski, ospea –arrakastaren izartegi elektriko hori– ezin daiteke txarrago sentsurik ez duenarentzat, eta halaxe dabil orain guapitua, *argiak* itsututa. Harrotu egin zaigu, euskal

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apalaza

letra aerodinamikotako gure Cesc Fabregas, euskal poesia antipoetikoaren gure Justin Bieber, euskal pentsalari erbestera berrien gure Tom Cruise ilehoria. Izan ere, ezin esan guapoa ez denik. Kirmen Uribe *Bilbao-New York-Bilbao*ko pregoilari jantzia baino askoz ere ederrago, dudarik

ez egin. *Zutabe* aldizkariko sortzaileek munduko poeta sexien zerrenda ezagutzera emango balute, bertan Joan Mari Irigoien, Bitoriano Gandiaga eta Beñat Sarasola aurkituko genituzke, besteak beste. Arrakastatsua, gaztea, galanta, sinpatikoa, azkarra eta xarmagarria. Ondorioa: literatura egin nahi du. Balizko nobela batean berrerabiltzeko moduko *ttakunak* idatzi. Aurreratuko dizuet: Uxue izango da hiltzailea eta José Luis, berriz, detektibea. Beñat Sarasola, ARGIA, 2286. zenbakia, 2011-07-24. Eskuarlean daukat frogia. Ia argitutzat daukat kasua. Zer egingo dugu ba, kapritxoa sartu zaio mutikoari. Eta gainera lehen euskal *best seller* onena idatziko du gure kontura. Okerrena, Uxue pertsonaia trabarik gabe onartu diola emandako papera. Are okerrago, “hiltzaile izateko ohorea” ematen diola aitortu zion bere eta bion egileari. Ikertu egin behar dut Uxue delako hori. Bihar. Gaur, nik nirea esango dizut, Sarasola jauna: greba egingo dut nire eskakizunak betetzen direla egiaztatzen dudana arte. Bost dira: pertsonaia astakirtenei José Luis jartzen zaie, normalean, ba niri Ander esango didazu, Ander BlackBerry. Hori lehenengoa. Bigarrena: Amy Winehouse zenaren ile berdina eramatea Uxuek. Hirugarrena: inoiz gure nobelarekin telesaila egingo balute, niri Kandido Urangaren ahotza jartzea. Lau: Roberto Bolañoren liburu bat, dedikatua. Eta bost: zure hilketa argitzeko agindua lehenbailehen ematea. ■



Zutabe aldizkariko sortzaileek munduko poeta sexien zerrenda ezagutzera emango balute, bertan Joan Mari Irigoien, Bitoriano Gandiaga eta Beñat Sarasola aurkituko genituzke, besteak beste. Arrakastatsua, gaztea, galanta, sinpatikoa, azkarra eta xarmagarria. Ondorioa: literatura egin nahi du



Urtzi Urrutikoetxea

KAZETARIA

Tbilisi-Iruñea



amahiru urte nituen, eta Paristik bueltan gentozen oporretan. Gau luzea behar zuena, uste baino laburragoa egin zitzaigun, irratia adi.

Moskun zegoen albiste. Mundua aldatzen ari zen eta Armada Gorriko zenbait militarrek Mikhail Gorbaxoven perestroika eten nahi izan zuten, hura Krimean oporretan zegoela. Boris Ieltsin agertu zen orduan telebistan; egun gutxian Sobietar Batasunarenak egin zuen. Inongo asmo independentistarik erakutsi ez zuten Asia Erdialdeko errepublikek ere, Stalinekin egindako mapetan, estatu bihurtuta ikusi zituzten euren buruak.

Hiru errepublika baltikoekin batera, Georgia zen garai hartan Sobietar Batasunetik irten eta estatu independentea eratzeaz argi hitz egin zuten errepublika bakarra. Zviad Gamsakhurdia zuten buruzagi. Gaur muturreko nazionalista aurkeztu ohi badute ere, duela hogeituro urteko elkarrizketak irakurrita jabetzen zara ez zuela berehalako haustura bultzatu. Gamsakhurdiak ere, bost urtean bereizteko egitasmoa zeukan buruan, independentziarako trantsizio lasaia egiteko. Moskuko gertaerek behartu zuten batek hondoa jo eta bestea jaiotzera.

Gurean gertatzen ari den aldaketa ez dakit gure



DANI BLANCO

Berlingo Harresia, 1991ko Mosku edo 2011ko arabiar udaberria den. Ezker abertzaleak azken urteotaz egindako hausnaraketak eta apustuak arrakasta handia ekarri dio orain arte. Eta pentsatzekoa da estrategia horretan Mariano Raxoiren gobernua ere hartuko zela balizko aukera gisa, erabateko gehiengoarekin edo gabe.

Botoak edo hautestontziak esan zieten, eta bigarrena hautatu. Azaroaren 20rako, Bilduko kideek proposamena egin diete Aralarri eta EAJri. Asko litzateke Nafarroan abertzaleak lehen indarra izatea. EAJk arrazoi du esatean horrelako proposamenak ez direla egiazko, aurretiaz hitz egin ezean, baina urduritasuna ere ageri du. Eskuin eta ezker abertzalea, horren antagoniko izanagatik, batu beharko dira egun batean, une baterako. Eta hori lortuta, atzera ere bereizi nor bere herri ereduarekin. Ona litzateke 2013 inguruan horrelakoren baten inguruan biltzea.

Baina hondora doan Espainiarekin,

Moskuko lezioa ere aintzat hartzea ondo legoke, uste baino lehenago erreka jotako inperioarekiko soka guztiak moztu behar badira ere. Georgiak independentzia aldarrikatu eta planifikatu zuen, baina uste baino lehenago lortutakoan jabetu zen ez zegoela prest oraindik. ■

Hondora doan Espainiarekin,
Moskuko lezioa ere aintzat hartzea
ondo legoke, uste baino lehenago
erreka jotako inperioarekiko soka
guztiak moztu behar badira ere

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



egiten du astekari honek abuztuan, eta geldialdiak herdoiltzen dizkit neurez aski lehor izaten ditudan garunak. Oriotarren

Mirotza bezain geldo dabilkit gogoa, hala ere, ekin eta jarrai egin behar ardura betetze aldera. *Garan* irakurri dut hain ugaria zen euskal futboleko atezainen harrobia krisiak harrapatuta bizi dela. Eta niri, Martin Garitanoren irudia ekarri dit gogora. Nonahitiki ari zaizkio jaurtitzen baloiak zientoka eta batera, Roberto Carlosek bezain bortizki, Iniesta bezain bihurriki goitik behetik, alde batetik eta bestetik bere burua kokatzeko ere astirik eman gabe. Prestakuntza egokienak ere, ez

Pausa

lioke inori bermatuko tamainako bonbardaketaren aitzinean arrakasta. Eta defendatu beharreko atearen erraldoia izugarriagoa litzateke atezain bakar batentzat. Eskubaloilari aluenen

taktikaz ari zaizkio jaurtitzen, burura eta beldurtzeko asmoz, zelaia abandonatu dezan. Argi dute nora jaurti, golak non sartu. Momentuz, badirudi hitza dutela soilki baloi. Denborak esango. Holako erasoan aurrean hockeyko babes jantzia ere hutsa luke Garitanok osorik irauteko, kideez inguratu, zelaia okupatu eta jaurtitzailerak neutralizatu ezean. Denon beharra izango du partida gainditzeko. Adi gazteak, prest gazte izanak, epelen ondoren hotzak datoz. ■

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Kataluniatik ikasgaia

Ez dut Katalunia asko ezagutzen, ez naiz bereziki katalan zalea, gutxitan ibili naiz handik. Urruti samar ikusi izan dut beti, eta ez diot aparteko atentziorik jarri. Udan, bost egun pasa ditut Gironan. Denbora oso gutxi izanik ere, ikusitakoak ematen dit zer pentsatua.

Edonora joanda, edozein albisteren edo gertaeraren aurrean, detaileak ditut gustuko, txikikeriak diruditenek beste edozerrek baino gehiago erakusten baitute askotan. Sartu naiz taberna batean eta apalean zintzilik dauden sei egunkarietatik lau, katalanez dira. Liburudendan, kostatu egin zait gaztelaniaz idatzitako liburuak topatzea. Egunkaria irakurtzean jakin dut telebistako hamar programa ikusien artean, bost TV3koak direla Katalunian. Eta txikikeria horiek pentsatzera naramate han badagoela kultura oso indartsua, sekulako bultzada duen herrialdea, independentea ez dena, baina eguneroko bizitza hala balitz moduan egiten duena. Nabari da iragan aberatsa dutela, ibilbide kultural luze eta emankorra.

XI. mendean, Katalunia herrialde egituratua zen dagoeneko, independentea ia-ia, lehenengo musulmanei eta gero frankoei aurre egin eta gero.

Zenbait lekutan badago materiala ez den ondarea, ukitu ezinezkoa, airean, atmosferan



Gurean Aldundiek jasotzen
dituzte zergak, baina
nik ez daukat dudarik:
independentziatik gertuago
daude Katalunian



nabari dena, eta horixe sumatu dut Katalunian. Ez nago Amerika deskubritzen, esan nahi dudana da zirrara eragin didala Europan estaturik gabeko kultura indartsuenetakoarekin izandako hartu-eman laburrak.

Katalanez lau egunkari badaude, ez da abertzaletasunak edo konpromiso patriotikoak bultzatu dituelako, errentagarriak direlako baizik. Independentismoak gero eta indar handiagoa dauka ez katalanak abertzaleago sentitzen direlako, independente izanda, gauzak hobeto joango direla uste dutelako baizik. Abertzale izan gabe, independentziaren aldeko apustua egin daitekeela erakusten digute Kataluniatik, eta posible dela subiranotasun transbertsala, gurean oraindik entzun ere egin ez duguna.

Katalan “epelen” aldean, euskal abertzaletasuna sendoago eta aurrerago zegoela uste izan dute askok Euskal Herrian, ohiko harrokeria puntuarekin. Baina handik ikasgai oso argia datorkigu, krudela bezain erreala: urteetan sufritu dugun gatazka armatua desastre hutsa izan dela, samina eta desgrazia besterik ekarri ez digun hondamendia. Gurean Aldundiek jasotzen dituzte zergak, baina nik ez daukat dudarik: independentziatik gertuago daude Katalunian. Jordi Pujolek bere azken liburuan dio: “Independentistak izan ala ez, gutxienez izan gaitzen oso independenteak”. ■

TXANDAN

Andoni Mujika



Teoria eta praktika. Zenbatean elkarrekin! Ekimen interesgarriak garatzeko nahitaezkoak omen dira biak. Baina esateak bakarrik ez du balio. Bi plano hauek giro zaindua behar dute protagonismo orekatuan elkarrekin joateko. Eta aldeko giroa sortzen da bi norabideko errekonozimendu zintzoa (premiatik datorrena) dagoenean. Maxima hau egiaz jarraitzen duen ekintzaile zein pentsalari gutxi dago. Beraz, desorekak sortzen dira ametsak egikaritzean. Gogoeta hau ilustratzeko, adibide bat ekarri nahi dut, irudi bat. Desoreka, pasarte honetan, teorikoaren aldera joan da:

Katiuskak

“Imajinatu amets batekin dar-dar egin duen ekintzaile bat. Gainera ideia hori gauzatzeko prest dago eta katiuskak jartzen ditu horretarako. Errealitatearen gainean ilusioa eraikitzeak daukan materia bakarra lokatza da. Erabaki du lupetzarekin ez duela edozer egingo, eta edozelan ere ez. Horregatik jantzi ditu katiuska laburrak, belaunetik beherakoak. Lupetzetan dabilenean tentuz ibili beharko du eta, pasatzen bada, gainezka egingo dio lokatz umelak, galtzerdia bustiz. Berak orekarako neurriak hartu dituen arren, zuloaren gain-aldeak zorrotz begiratzen du ametsaren autoreak. Ez da giroa sortzeko jarrera ona, ametsa maite arren”. ■



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

BERTSO BERRIAK

Eneko Bilbao Aresti

Bertso berriak, *mittard*-ean jarriak



I

Bertsolaria ez naiz ni eta
aurkeztu nadin hasteko:
abizena dut Bilbao eta
izena, berriz, Eneko;
Paris aldean preso naukate
lau urtez dagoeneko,
baina badaukat istorio bat
zuekin konpartitzeko.

II

Zigor-ziegatik nabil idazten
hau da gure miseria!
Leiho txiki bat baino ez dago
doi-doi sartzen da argia,
saiaitu arren ez dute lortu
zulo bat guztiz itxia...
zirrikitutik sartu da berriz
joan den asteko ARGIA.

III

Sarriegiren bertsoei adi
nago zalantzaz beteta,
sorta oso bat fin aurkezteko
zein ote da errezeta?
Asmatzen badut, publikatzean
jar ezazue arreta,
argazki soil bat erakustea
delitu omen da eta.

IV

Kartzelariak gure kide bat
jipoitu zuten unean
gainontzekooi barrua sutu
zitzaigun derrepentean,
promenade-a blokeatuta
protesta egin ostean
Fleury-ko euskal preso guztiok
gaude orain *mittard*-ean.

V

Osorik bete zuen Gotzonek
bere kondena makurra,
abioira igo eta Madrilen
hartu behar zuen lurra,
han eta hemen kartzelaria
izan ohi denez txakurra,
ukabilkoka eta ostikoz
eman zioten agurra.

VI

Itsas-labarra hurbil duenak
egiten duen antzera,
botila baten mezua sartuz
bota olatu artera...
Gotzon, zuretzat bidaltzen ditut
nik bertso hauek airera,
animo, lagun, maite zaitugu...
gogor eutsi eta aurrera!

Mittard: Frantziar kartzeletako zigor-ziega.

Promenade: Presoek kartzelako patioan egoteko daukaten denbora tartea (egunean 2-3 ordu).

Promenadea blokeatzea: Patioan egonda, berriro ziegara igotzeko aginduei uko egitea.

Fleury: Paris ondoan dagoen kartzela.

DOINUA: Loa, loa, txuntxurrin berde.



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

Emakumeak protagonista

Gema Lasartek 1979tik 2009ra bitartean emakumeek idatzitako 27 eleberritako pertsonaia protagonista femeninoak aztertu ditu doktore tesi batean, generoaren gaineko diskurtsoak analizatuz. Mari Jose Olaziregik zuzendutako tesia maiatzaren 7an aurkeztu zuen *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* titulupean.

IRATXE ESNAOLA

Argazkiak: Dani Blanco

MENDEBALDEKO LITERATUR tradizioan emakumeek izan duten ikusezintasuna islatu izan da pertsonaia protagonista femeninoetan duela oso gutxira arte. 1979 arteko euskal literatur pertsonaien historiak Txomin Agirreren *Garoa* (1912) eleberriko Joanes artzaina, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelako Leturia (1957) eta Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eleberriko berritsua hartu ditu kontuan. Oraingotan, Gema Lasarte (Erreterria, 1962) Irakasle Eskolako irakasle, ikertzaile eta ARGIAko kolaboratzailea euskal pertsonaia protagonista femeninoei begira jarri da eta aipatutakoei berri bat proposatu die: Arantxa Urretabizkaikaren *Zergatik panpox* (1979) eleberriko Ama. Aparteko garrantzia eman dio Lasartek. “Literatur pertsonaia protagonista femeninoak sortzerakoan bera da protagonista subjektua sortzen lehena, baita euskal literaturan 70eko hamarkadako askapen mugimenduaren aldarriak bere egiten ere. Horiekin dialektikan sortu zen pertsonaia. Zela amatasuna, antisorgailuak, gorputzaren mintzaira, bikote harremanen ezintasuna... Hori apartekoa da euskal literaturan”.

Emakume protagonistek aldaketak jasan dituzten jakin nahian hasi zuen 27 eleberrien azterketa eta “emazte eta ama eredugarriaren antitesia” sortu dela ondorioztatu du Lasartek, “emakume berria” deitzen duena. Hari narratiboaren subjektu bihurtu dira emakume protagonistak. Emakume berria pasibota-



Gema Lasarte: “Gaur egun askoz ikusgarriagoa da emakumeen presentzia nobelagintzan, baina ez du gizonek adina idazten”.



Gema Lasartek uste du emazte eta ama eredugarriaren antitesia sortu dela euskal literaturan pertsonaia protagonista femeninoen bidez: pasibotasunetik irten den emakume bat, erabakitze ahalmena duena eta literaturak historian zehar esleitu dizkion rolak saihesteko gai dena.

sunetik irten da, erabakitze ahalmena du, eta aldi berean, literaturak historikoki esleitu dizkion roletatik irten da. Lasartek uste du emakume idazleek gizarteari erreparatu eta kontzienteki aukeratu dutela bertoko arazoak pertsonaietan hezurmamitzea. “Gizartean gertatzen ari diren gauzak kontatzen ari dira emakume idazleak. *Zergatik, Panpoxetik* hona konstantea izan da. Esate batera, Kar-mele Jaioen *Musika airean* eleberrian ikusten da emakume zaharrak zertan pentsatzen ari diren, zerk kezkatzen dituen. Elenak, protagonistak, senarra hiltzean deskubritu du bakarrik bizitzea gustatzen zaiola. Emakume zaharrek diote beren bizitza proiektua eraikia zegoela jaio zirenetik, ez zutela izan ez aukerarik, ez gunerik zer egin erabakitzeke”.

Linda Whiteren *Basque Women Writers of the Twentieth Century* (1996) tesian euskal literaturan androzentrismoa zegoela frogatu bazen, Lasartek gaur eguneko presente darraiela ondorioztatu du. “Gaur egun askoz ikusgarriagoa da emakumeen presentzia nobelagintzan, baina ez du gizonak adina idazten; %15aren inguruan dabilta, oraindik. Hortik abiatuta aipatzen dut androzentrismoa. Badirudi izugarritzko boom-a dagoela, baina gutxi batzuk dira ari direnak”. Tesi honek emakumeen sorkuntzari ikusgarritasuna dakarkion neurrian euskal kanona alda dezakeela uste du, baina mantsoki. “Even Zoharrek ondo esplikatuta bezala, kanona zentrotik periferiara edo periferiatik zentrora egiten den mugimendua da. Hau ez da kasuala. Irakurle, komunikabide, argitaletxe eta literatur sisteman mugitzen direnen artean sortzen

da. Mundu horretan bere egoeraren jakitun den emakume kontzientea indartzen ari den neurrian, kanona ere mugituko da”.

Urteak pasa dira *Zergatik panpox* argitaratu zenetik. Edonola ere, Lasartek aurkitu du tesi honen korpusean literatura eta gizartea dialektikan jarri dituenik. “Izugarri txunditu ninduen eta txunditzen nau oraindik Lourdes Oñederraren *Eta emakumeak sugeak esan zion* (1999) eleberriko Teresa protagonistak. Ez dago senarrarekin, ez maitalearekin, ez genesiak esaten dionarekin. Nire ustez, urrun du gizona eta bizitza errealean ere hala sentitu izan dut. Tesian diot emakume berria hemen dela, baina gizon berria urrun dago. Tesi berri bat egin behar banu gizon berriaz egingo nuke! Ezin dugu berdintasunaz hitz egin gizona berri ezean. Badakit maskulinitate berriak sortzen ari direla,

baina pribilegioetatik askatu eta dena kuestionatu artean ez da berririk sortuko”.

Emakume berria sortzeko, identitate berria gorpuzteko, modu ezberdinak baliatu dituzte pertsonaiek. Krisialdietatik irten dira batzuk, transgresioaren bidetik ekin diote bestetuek. Nortasuna berreskuratu nahi dutenei laguntzaileak agertu zaizkie bidean, emakumeen konstelazio forman. “Kritika feministak esan du emakumeek emakumeekin egin izan dutela bidea. Pertsonaia protagonista femeninoak gizartea kontra eduki du gehienetan, eta aldez, emakumea laguntzaile. Uxue Alberdiren *Aulki-Jokoan* (2009) hiru emakume lagun min daude, eta Kar-mele Jaioen Elenak konstelazio handia du inguruan. Emakumeen genealogia sortu da beren hizkuntza eta bizimoduak konpartituz”.

Kontzeptuak eta kontatzeko moduak aztertu ditu generoaren gainean eraikitako diskurtsoak analizatzeko. Memoria, amatasuna, nazioa, genero indarkeria eta sexu identitatea izan dira aztertutako gaiak. Gehien errepikatu den kontamoldea modus autobiografikoa izan da. Iragana gogora ekarri dute ia denek. “Oraindik emakume idazleek euren buruarekin hausnar egiteko beharra dute, nortasuna finkatu, atzera begirada bota eta kokapen bat egiteko. Modus autobiografikoaren teknika erabiltzen dute gogoeta egiteko eta hortik zerbait berria eraikitzeke”.

Bestalde, genero indarkeria gai nagusitzat hartu dutenak %5era ez dira iritsi. Ezberdintasuna modu naturalean onartzean datzan indarkeria sinbolikorik ere ez du antze-

man. “Emakumeek ez dute indarkeria sinbolikoa legitimatu, eta uste dut horren jakinaren gainean egin dutela, beraien ikusgarritasuna eta legitimitatea eskatzen ari diren emakumeak baitira. Genero indarkeriaren gaia, beharbada, beldurragatik ez da azaldu. Gai delikatuak eta traumatikoa da, kudeatzen oso zaila. Aitziber Etxeberriak *Tango Urdinan* oso ondo lortu du, hala ere. Beste guztiak esandakoa entzuten da baina eraso jasan duena ez. Ez da erraza. Kontu handiarekin idatzi behar da sinesgarri izan dadin. Komunikabideak oso gainean daude eta hori errealtatera jaitsi eta ikusaraztea oso zaila da”.

Nobela beltza: sexuaren eta generoaren berridazketa

Itxaro Bordak nobela beltzari eta lesbianismoari eskaini dizkion lau liburuak (*Bakean utzi arte*, 1994; *Bizi nizan munduan*, 1996; *Amorezko pena baño*, 1996; eta *Jalgi hadi plazara*, 2007) aztergai dira tesian, Amaia Ezpeldoi protagonistaren bitartez. Tradizioz gizonena izan da polizia generoa, baina estereotipoak baztertu izan dituzte generora gerturatu diren emakumeek. Gizonezkoen mundu ikuskera hegemonikoa eta ideologia feministaren arteko ezkontza posible den planteatu da tesian. Hau da, polizia nobela eta lesbiana detektibearen batura sinesgarria gertatzen al den. “Tesiaren hasieran planteatu nuen literatur pertsonaiak sinesgarria izateko bi premisa behar dituela. Bata, teoria feministari kasu egitea zientifikotasuna duelako emakume galetan. Teoria feministatik hurbil baldin badabil pertsonaia femeninoa, seguru asko, sinesgarria izango da. Ez alferrik, feminismoak urteak daramatza ikerketak egiten. Eta, bigarrena, Butler-en performatibitatea erabiltzea, alegia, maskulino eta femenino

“Emakumeek ez dute indarkeria sinbolikoa legitimatu, eta uste dut horren jakinaren gainean egin dutela, beraien ikusgarritasuna eta legitimitatea eskatzen ari diren emakumeak baitira”

GEMA LASARTE

kategorien arteko mugak lausotzea. Prisma horretatik begiratuta oso sinesgarria da Amaia Ezpeldoi”.

Amaia Ezpeldoi ez da detektibe latza, sentibera da eta landa girokoa. Parodia darabil arma bezala, ez du hizkuntzaren erabilpen sexistarik egiten, lesbiana izaera plazaratzen du. Nolanahi dela, tesian agertzen du Lasartek hau ez dela arruntea. “Pertsonaia lesbikoak edota harreman lesbikoak urriak dira euskal literaturan: modu inplizituan eta esporadikoki Laura Mintegiren *Nerea eta Biok* (1994) eta Garazi Goiaren *Bi hitz* (2008) eleberrietan antze-man ditugu, eta esplizituan, Amaia Ezpeldoioren gorabeheretan eta Ixiar Rozasen *Edo zu edo ni* (2000) eleberrian”.

Kritika, tresna bat

Gema Lasarte izan zen Sareinak proiektuaren sortzaileetako bat. Emakumeen literatura periferiatik zentrorra ekartzeko intentzioarekin sortu zen orain bost urte blog hau, metodologia feministak proposatuz literatura modu berrian irakurtzeko. Lasartek ez du zuzenean tesia helburu edo asmo harekin lotu. “Nik euskal literaturari generotik begiratu nahi nion tesi honekin. Emakumeen begirada eskaini, emakumetik eta feminismotik. Uste dut lortu dudala eta gustura nago”. Eleberrien gaineko interpretazioen legitimotasunaz galdetzean, argi dauka: “Kritikaria zenbat eta jantziago orduan eta hobe. Metodologia eta kritika feminista alboan hartuta, legitimoa da bere lana idazlearena den bezalaxe. Esaten dena arrazoitzean dago gakoa. Berrirakurketak dira, proposamenak. Beraz, berrirakur ditzagun testuak emakumeek ematen dituzten testuekin. Guk ez dugu historia irakurri, guri tokatzen zaigu beste begirada batekin gauzak kontatzea”. ■



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

Gizarte-sareak

Hedabideak vs. komunikabideak

Artikuluaren egileak Irudiaren indarra hausnarketa plazaratu zuen 1992ko irailean, ikus-entzunezkoen bilakaera aztertzen zuten adituen lanak landu ondoren. Hemeretzi urteren ostean, komunikazioak “gizarte-sarean” betetzen duen rola gainera hausnarketa egin du Manuel Castellsen *Comunicación y poder* liburua jorratu ondoren. Elkarren segidan paratu ditu hausnarketa biak, artikulua komunikazioaren adituen interpretazio subjektiboa izaki.

MIKEL ASURMENDI

IRUDIAREN INDARRA (1992). Adituen hitzak dira honako hauek: “Ikonosferak inguratutik bizi da gaur egungo gizabanakoa. Geruza artifizial mass-mediatiko honetan telebista dugu ikuskari eraginkorrena”. Erran nahi baita: zibilizazio mendekide honetan irudiak signifkazio kultural itzela dauka. Bereziki, eta batez ere, argazkia azaldu zenetik. Geroztik, teknografia ikonikoa medio, irudia eta honen erabilpena antzina pentsaezina zen mailetaraino iritsi dira.

Mendebaldeko gizarte modernoaren komunikazio ekosisteman ikus-entzunezko ikuskariek –nagusi-ki eta modu berezian– osatzen dute gure mundu irudikorra. Hau da, pentsatzeko gure ahalmena, antigoaleko gizakiak mundua bere gogoan irudikatze zuen ahalmena, komunikabideetako irudiaren indarrez itsutua zatekeen engoitik.

Iraultza teknologikoak –sozietate postindustrialaren ostean– ahalbidetu duen komunikaziorako ekosistemak uniformatzen gaitu. Gure irudiaren objektu eragingarria den ikonosfera, guztiok berdindu ez ezik, gure irudimena ezeztatzen ari da. Irudiaren inflazioak gaineztaturik bizi gara. Aro teknologiko honetan irudiak berebiziko eragina dauka, komunikatzeko orduan irudiaren indarra izugarria baita.

Ikonografia irudiaren adieraz moldea da. Gizateriak, komunikatzeko beharrean, bere eboluzio historiko sozialean, gogo sistema gorenaren ondorio funtzionala kontsideratuta dagoen hitzezko lengoiaia desarrolatu du. Pentsamendu abstraktuarekiko duen gaitasunari atxikirik dagoena. Hala izanik ere, berau sortu aitzin, gizakiak irudiekin eratu eta osatu egin zuen bere gogoia. Irudia eta hitza. Hitza

eta irudia. Historian, hainbat kulturatan, bien ala bien bidez garatu izan da komunikazioa. Idazkera fonografikoa bihurtu zenean, sentsibilitate bien –irudia eta hitza– artean urruntze bat eman zen. Ez dezagun pentsa horregatik, ikonografiaren eboluzioan dena kalterako izan denik.

Nolanahi den ere, mailaz mailako trinkotasun ikoniko bat “jasan” duen gizarte honen prozesuaren goi-puntaraino iritsi bide gaitzke. Beste aro baten abiapuntua al da gurea? Hala dirudi. Izan ere, puntu batera iritsiak gara, non –interes ekonomiko- en menpe partikularki– desoreka eta desmasia informatiboak informatu baino desinformatu egiten gaituen.

Adituek, noski, egoera honi buruzko interpretazio ezberdinak egiten dituzte: aldekoak zein kontrakoak. Bego hortxe!

Urte osoan harat-honat ibili ostean, amaitze dagoen sasoi estibalak gure irudimena pittin bat gehiago lantzeko parada ematen digu, apika. Bestela esanda: pertsonok, agian, aipatutako ikonosferaren eraginetik apur bat deskonektatuago bizi izan gara opor garaian. Hobe hala balitz!

Orain, berriz ere, *La rentrée* delakoa gauzatzen ari garen honetan, haurrak etortzen zaizkit gogora. Umeak irudimena haurtzarotik garatzen baitu bereziki. Zeinengan, irudiaren beraren konposaketak –eta eraginak– berealdiko inportantzia eta funtsa baititu bere izatearen eraketan.

Neronek, guraso naizen aldetik, goi-mailako ikasketetan “irudiaren egitura” ikasgaia erakusten den bezala, “mundu ikonografiko berria” ikasgai gisara proposatuko nuke haur ikaskuntzan. Izan ere, irudiaren erabilpenarekin kritikoak izan ezean, gizarte industrial

“Masen autokomunikazioaren zati garrantzizko batek ‘autismo elektronikoa’ rekin antza gehiago dauka, benetako komunikazioarekin baino”

MANUEL CASTELLS, SOZIOLOGOA

garaiko “makinak gaindituko gaitu” usteari, “irudiaren desmasiaren zibilizazioa” fenomeno gehitu beharko baitiogu, zeinak gainditu ez ezik, irentsi egingen baikaitu. Osterantzean, pertsonak antzo definitu gaituzten jite eta sena galduak, hipnosiak jota biziko gara noraezean.

KOMUNIKAZIOA GIZARTE-SAREAN (2011).

Boterea komunikazioaren eta informazioaren kontrolean oinarritzen da. Alabaina, boterea komunikazioa baino gehiago da eta komunikazioa ere boterea baino zerbait gehiago. Manuel Castellsen aburuz, boterearen esentziaren forma pertsonon gogoia moldatzeko gaitasunean datza. Boterea, ordea, komunikazioaren menpe dago. Hor dago koska edo gakoak!

Gizartearen arauak eta hauen aplikazioa gogoaren moldatzearen arabera gauzatzen direnez gero, borroka horretan, komunikazioa funtsezko bitartekoa da. Komunikazioak botere harremanei desafiatzean, hauen eraketan eragiten du, hots, komunikazioak jarduera sozial orotan eragiten du, jarduera politikoan barne.

Jarduera sozio-politikoaren esparruan sartu gabe (bigarren artikulua batean, apika), artikulua honek XXI. mende hasiera honetan hartu nahi du, laburki bada ere. Egitura sozial hau komunikazio sare digitalen bitartez eraikia da, alta, ez dago hauek determinatuta. *Comunicación y poder* liburuaren egileak dioenez, sareak “masen autokomunikazioa” ahalbidetu dute, erabiltzaileak mezuen emisore eta errezeptore bilakatu direlako. Hona bilakatze honen ezaugarri batzuk:

Gizarte-sarea botere harremanen arabera garatzen bada ere, botere harremanak harreman ez-sozialak bihurtu daitezke.

- Komunikazio sare hauek hainbat komunikatzailek –mezu fluxu ugariren bidez– sortutako kontaktua eta jarraibidea dira.


- Egitura sozial hau lokala eta globala da aldi berean, baina ez lokala eta nazionala.

- Sareen inguruan eratzen ari den dinamika sozialak gizartea deseratzen du, eraketa sozial egonkorra sustatu beharrean.

- Giza bizitza eta bizitza artifizialaren arteko mugak difuminatzen ari dira.

- Sare sozialak egitura sozialen berezitasuna izan dira gaur arte.

- Gizarte-sarea egitura dinamikoa da



–denboran eta espazioan kokatua– indar sozial, kultural eta ekonomikoen beharretarako malguegia. Globalak baina, lokala menperatzen du.

Ondorioa: gizarte-sarea ez da iraganeko egitura sozialen aldean hain diferentea. Izan ere, gizarte egituraren menperatzaileek erabakitzen dute gizarte-sarea izatea nahi dutena.

Gizarte kapitalista industrialean denbora urrea zen/da, urrea denboraren bidez pilatzen zen/da. Gizarte-sarean alderantziz da: denboraren harremana informazioaren teknologiak definitua da. Gizarte industrialean “izatera iristea”k “izatea” egituratzen zuen, denborak espazioa moldeatzen zuen. Gizarte-sarean, fluxuen espazioak denbora deuseztatzen du, jendarte behin-behineko egituran instalatzen da: “izatea”k “izatera iristea” deuseztatzen du.

Kultura gizarte-sarean

Gizarteak kultur konstruktioak (egileak) dira. Hartara, gizarte-sarearen konplexutasunak ardura berezia eskatzen du, arreta handiz jardutea. Bestela, sareen bitarteko kultura homogeneo globala –joera nagusia dibertsitate historikoa eta kulturala garatzea da– garatu ordez, egileek kulturen konbergentzia baino zatiketa ekar dezakete. Castellsen iritziz, egitura global interdependentea partekatzen ari gara, baina artean ez gara balore eta lengoia amankomunak partekatzeko gauza. Eta honek gaizki ulertze sistemikoa ahalbidetzen du, bestearekiko biolentzia suntsitzailean oinarritzen dena.

Gizarte-sare globalaren kultura komunak kultura ezberdinen artekoa errazten du, baina ez baitezpada balore partekatuen arteko kultura. Komunikazioaren balorea partekatzeko bitartekoa da, baina kultura globala –sarean nagusia– komunikatzearen komunikatzea da.

Liburuaren egileak gogoaren (“*mente*”) eta boterearen sareak sakon aztertzen ditu, baita gizarte-sarearen arriskuak azaldu ere, gizarte-sareak gure jardueran eta kultura politikoan duen eragina aztertzeo hagitx lagungarriak.

Azkenik, Castellsek “masen autokomunikazioa” fenomenoari kasu berezia egiten dio. Hona bere oharra: “Masen autokomunikazioaren zati garrantzizko batek ‘autismo elektronikoa’rekin antza gehiago dauka, benetako komunikazioarekin baino”. ■

Liburuak

KRITIKA

Mea culpa. Uxue Apaolaza.
Elkar. 188 orrialde. 16 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



Inon ez naiz errepidean bezain ongi sentitzen

DENA KULPA SENTIMENDUA DA, intraszententzia, hutsala, handiustea. Hori dio eleberri honetako ahots nagusiak, edota pertsonaia protagonistak, organo boikot egileak zerbait egiten uzten diotenean. Gairik nagusia hori bada ere, beste anitz azaltzen da ardatz tematiko honen pareko. Euskal Herriaren izate politikoa eta ekonomikoa. Heriotza. Zahartzaroa. Desira. Lesbianismoa. “Heterosexual izan behar izan dugunok eskubidea behar genuke gure azken urteak lesbianaz beteriko erresidentzia batean pasatzeko, gu baino gazteagoak ahal dela”. Harremanak. “Bakardadeak sorpresa zoragarriak ditu halere, kultura mendebaldarrak asko utzi du industeko, eta pelikula, liburu eta kanta artean bidelagun asko ezkututzen da”.

Pelikula, metaliteratura eta musikaz osaturiko intertestuaz garatzen da eleberria orrialdez orrialde. Metaliteratura, izan ere, protagonista nagusia eleberri bat idazten ari baita eta eleberria eta argumentuaren arteko mugak lausotu egiten baitira, lehen pertsonatik hirugarren pertsonara etenik gabeko jauziak eginaz. Ahots polifonia sarean, birtualitatean, Facebook dela bide eraikitzen da. Pertsonaien erromeria honetara, interesgarria da Ur Apalategiren pertsonaia bat eta Xabier Montoia bera ere pertsonaia bezala erakartzea.

Gaiak eta pertsonaiak ugariak badira ere, bi dira nagusiki inportanteak: Elisa eta Lur, eta bien arteko bizikidetzaren proposamena. Bien begiraden bidez ikusiko dugu inguruko errealitate gordina. Lurrek kulpaz beteriko begiradak ikusaraziko digu Euskal Herriko errealitatea nahiz berea. Ama kolonizatzaileaz mintzatuko zaigu, Gurutze Iantzi, Lasa eta Zabala, *Egunkaria*, Migel Angel Blanco. Errepideetan bezain ongi inon bizi ez den pertsonaia hau izugarri ondo eraikia dago, despertsonalizazioa *in extremis* lortu arte. Besteen zorionak mintzen du. Konpartitu duen iragana “puta mierda” da eta hainbat enkontrutan bortxatzeko gogoia sentitu du.

Elisa aldiz, oso bestelako identitatekoa da, besteen begiradak urrunduz berea eraiki duena, bizitzan perfoamancea egitea tokatu zaiona, baina umorez hartu duena. “Elisak lanak zituen Julie Andrewsek bezain tente mantentzen. Julie Andrewsetik Mildred Nartwick-era pasa nintzen, *Descalzos por el parque* mozkortzen denean”.

Eleberri honetan gauza gehiegi dagoela esango nuke ziztu bizian irakurtzeko, halere, begiraden kudeaketa, ahots polifonia eta bi pertsonaia nagusien artean proposatzen den enkontrua nabarmenduko nituzke. ■

Liburuetatik abiatutako pentsamenduak

Fermin Erbitik irabazi zuen Kepa Larreakin batera X. Juan Zelaia saiakera saria, eta horren ondorioz daukagu gaur esku artean *Hiru koaderno txiki* liburuak. Egileak bi urteko tartean idatzitako testuak bildu ditu, irakurtzen zituen liburuetatik abiatutako gogoetak, batik bat. Hortaz, gai




Hiru koaderno txiki.
Fermin Erbiti.
Pamiela.
124 orrialde.
12 euro.

ugari aurkituko ditugu Pamielaren eskutik argia ikusi duten orrietan: literatura, zoriontasuna, musika eta noski, komunikazioa, hori baita idazlearen ogibidea. Testu laburrez osatutako lana da eta, xehe-tasun gehiago eduki nahi izanez gero, ARGIAren 2.285. zenbakiko elkarrizketa lei dezake. ■

Jaun Zuriaren mitoaz Julen Arriolabengoak

Bizkaiko lehen jauna izan omen zen Jaun Zuria, baina gehienek pertsonaia mitikotzat daukate, egitak adina duena alegiatik. Iritzi aski zabaldua da bere inguruan ehundutako kondairak ez direla garaiko kronisten asmakizuna besterik. XVI. mendean asko zabaldu zen historia eta mitoa nahasteko joera hori eta garaiko testu asko “kronikoi faltsu” izenez dira ezagunak Julen Arriolabengoak liburuan azaltzen duenez. Tankera horretako narrazio mitikoak eta ipuinak bildu ditu Arriolabengoak liburu honetan, egilearen beraren hitzetan “euskal imaginario historikoa”-ren parte direnak: Oñez eta Ganboa, Bizkaiko jaunak, Tubal... ■



Jaun Zuriaren askazia.
Julen Arriolabengoa.
Alberdania.
186 orrialde.
15 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Trumbo.
Trumbo.
Matasellos.
Iraupena: 39'34".
10 euro.

Jazarpenetik jaiotako soinu gordina

TALDE BERRIA dator Gasteiztik, baina partaideak eskarmentudunak dira, Kashbad, Neubat, Sorkun, Näut eta beste hainbat proiektu ezagunetatik datoze-lako. Izenak aurreratu bezala, hirukote formatutik abiatuta, rock zikin eta pisutsua egiten dute, erritmo indartsua duena, stonerra alegia. Oinarri erritmiko errepikakor eta sakonaz gain, barneraino sartzen diren gitarra riff bereziak dira taldearen marka nagusia. Rock primitiboenetik eda-

ten duen estilo horrek, indarra, abia-dura eta melodia batzen ditu; eta hirukoteak behar den bezalako soinu gordina lortu du Arabako desertuan barrena. Euskaraz idatzitako hitzetan hausnarketa bereziak, irudimentsuak egiten dira, eta naturaz edo giza izaeraz aritzeaz gain, Dalton Trumbok bezala beste askok jasaten duten jazarpena gelditzen dira agerian.

www.myspace.com/trumbotaldea

Trumbo

«Sorgin-ehizak ez du etenik hemen ere»

Zein inspirazio aurkitu duzue Duran-nan? Ez dago AEBetara joan beharrik soinu gordina lortzeko?

Inspirazioa hamabost metro koa-drotan sortu da oso hilabete gutxi-tan, eta Duranetxe estudioa ezuste-ko oasi bilakatu zitzaigun. Urko Aranburu teknikariarekin edozein tokitan lor daiteke soinu zikiñosoa; pozik gaude.

Zer da Dalton Trumborengandik miresten duzuen? Hemen ere bada antzekorik, ezta?

Trumbok jasandako jazarpenak era-kartzen gaitu. Komunismoaren kontrako sorgin-ehizan kartzelaratu eta deserriratu egin zuten, eta erbes-tetik, ezizenekin, pare bat Oscar ira-bazi zituen. Hain urrutira joan gabe, Sarri, Antza, Sastre... beste edozein madarikatu erabil genezake. Sorgin-ehizak ez du etenik hemen ere.

Iritzia. Kantak eta musika zuentzat egiten duzue?

Gustuko duguna egiten dugu, inori begira egon gabe. Baina gero iri-tziak jasotzen dira. Jubilatuen eta musikazaleen zaletasuna da hori.



Autokritika, ordea, ez dugu besteek esandakoaren gainean egiten.

Niagarak ere ziprztintzen ez bagaitu, zeren alde mugitzeko gai gara?

Jendeak, oro har, joera du handi sentiarazten duen gauzetan baka-rrik parte hartzeko, kontzertua izan edokanpaldia izan. Larritasunak askotan ez du zerikusirik mugiaraz-teko bultzadarekin.

Hiru erregeen mahaia. Tarteka mito-logia eta paganismoa aldarrikatu izan dira; baina paradoxa badirudi

ere, Su Ta Garrek ez du inoiz mendi-zaletasuna aldarrikatu, eta zuek bai. Zer diozue?

Ezina eta beti maldan gora aritu behar izatea islatu dugu. Mendian gora paraje mistiko bat marraztu dugu, bidaia da gure nortasunean eta izaeran barrena, eta aurrera egin ahala atzean ezereza geratzen da; halako bertigoa ematen du, eta noraezean gabiltzalarik, aurrera egin-dako pauso bakoitzeko, bi egiten ditugu atzera. Zer izan ginen asmatu ezinik gabiltza, eta hala ere, oraindik bagara. Gu geu gara mitoak. ■

Ezpalak

JON TORNER

Soinu diatonikoa, Trikitixa
Jardunaldietako protagonista

KALEDANETAN.BLOGSPOT.COM

‘SOINU TXIKIA MUNDUAN’ izenburupean, trikitixa jardunaldiak egingo dira irailaren 5ean eta 8an Donostiako Udal Liburutegian, Trikitixa Elkar-teak antolatuta. Soinu diatonikoak munduko leku desberdine-

tan izan duen bilakaera aztertuko dute parte hartzaileek. Egitasmoak elkarren osagarri diren bi zati izango ditu: irailaren 5ean 19:30ean hitzaldia emango du Carlos Bel-dak; 8an, berriz, *Munduan barna* saio praktikoa eskai-niko dute Imuntzo eta Belokik. Tresnaren aldaera txiki batzuekin bada ere, soinu diatonikoa munduko hamaika txokotan jotzen da. Trikitixa, botoidun eskusoinu diato-nikoa, XIX. mendean egin zen ospetsu gurean. Indar gehien duen teoriak dio trenbidean lan egitera etorri ziren italiar eta frantziarrek ekarri zutela.

Elias Querejeta (Hernani, 1934) ekoizleak jasoko du Donostiako Zinemaldiko Zinemira saria, irailaren 21ean Victoria Eugenia Antzokian egingo den Euskal Zinemaren Galan. Ekitaldi horretan Imanol Rayoren *Bi anai* estreinatuko dute, Zinemira atalaren barruan proiektatuko dituzten pelikuletako bat. Euskal Herrian ekoiztutako zinemari eskainitako atalak zazpi film jasoko ditu: hiru estreinaldi (*Bi anai* eta David Aguilarren *Nao Yik* eta Enara Goikoetxea eta Iurre Telleriaren *El último paso* dokumentalak) eta aurtien ekoiztutako beste lau (Alberto Gorritiberearen *Arri-ya*, Esteban eta Jose Miguel Ibarretxeren *Un mundo casi perfecto*, Pedro Aguileraren *Naufregio* eta Fer-min Muguruzaren *Next music station: Lebanon*).

EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Iparr Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

Abarrak

MIKEL GARCIA

Herra

Arriya. Zuzendari eta gidoilaria: Alberto J. Gorritiberea. Aktoreak: Iban Garate, Begoña Maestre, Sara Casanovas, Ramon Agirre, Kandido Uranga, Iñake Irastorza. 101 min. Euskal Herria, 2011

ZENTZUGABEAK ETA AMAIGABEAK. Familiak eta gizarteak hausteko gauza. Horrelakoak dira Grezia klasikoaren garaitik istorio bortitzenetakoak sorrarazi dituzten herrak. Horrelakoa da baita ere Antxon eta Pakoren arteko gorrotoa, euren eta ingurukoen bizitza hipotekatu duen apustua tarteko. Zaldiak ala mandoak herrestatuko du harria arinago? Dagoeneko, gutxienezkoa da hori. Alde egitea da Peru eta Mariaren irtenbidea, ezinikusi horretatik eta herra bezain zentzugabea eta amaigabea izan daitekeen tradizio pozoitsuenetik ihes egitea.

Liskartuta dauden bi familietako belaunaldi gazteenen arteko maitasun istorio debekatu horrek Shakespeareren *Romeo eta Julieta* edo Medemen *Behiak* dakartzkigu gogora eta joera *goenkaleren* beldur gauzka hasieran, baina ondo hornitutako mundua eraiki du zuzendari zumaiaarrak, kulebroi zantzuetan gehiegi erori gabe, estereotipoetatik harago doazen pertsonaia indartsuei eta elkarri laguntzen dioten istorio paraleloei esker. Putzu handitan ere sartu da Gorritiberea bere lehen filmatzat duen honetan —*Eutsi!* enkargua izan zen—, errealismo magikoarekin saiatu baita, atzeraka doan denborarekin eta zahartzen doazen pertsonaiekin eta herriarekin jolasean; formulak ez dio kontaktari mesederik egiten eta nahasgarria ere bada hainbatetan. Hizkuntzarekin egin-dako saiakeran, aldiz, asmatu du zuzendariak, gaztelania eta frantsesa modu natural eta sinesgarrian uztartzen dira euskararekin.

Kontuak kontu, *Arriya*k irudikatzen duen unibertsoa da erakargarriena, neurri txikiagoan edo handiagoan identifikagarri zaigun erretratu antropologiko anker bezain gordina. Nabarmentzekoa da emakumeak onik ateratzen direla erretratu horretatik. Ohiko rol pasibotik urrun, senar ahoberoak katramilatutako egoerak askatzen eta familiak kateatuta duen mutilaren inguruan erabakiak hartzen dituzten emakumeak dira filmekoak, kementsuak, sendoak eta zentzudunak.

Desafioa bere buruari egin dio Gorritiberea. Erraza ez den gaietan sartu du hatza, teknikoki modu ausartean egiten saiatu da eta islatutako mundua gertutik ezagutzen duenaren maitasunarekin eta ikuspegi kritikoarekin herrestatu du *Arriya*. ■





Dive Tarpoon urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxa: 94 4912577
divetarpoo@euskalnet.net
www.divetarpoo.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Sekulako marka

Aurtengo Asiako Atletismo Txapelketan gertatua.

Sei metrotik gorako jauzia egin ondoren, Hego Koreako txapelduna Ipar Koreako txapeldun bilakatu da!

Epailea etxean

Lehen mailako futbol-epailea etxera iritsi da:


- Kaixo, maitea. Ikusi al duzu partida?
- Bai.
- Eta?
- Biharko ordua hartu dizut okulistarenean.

Arrantzaleak

Arrantzaleak gezurtiak izan ohi dira.

Eta gezurtienak, besorik luzee-nak dituztenak!

Soluzioa





Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan



*Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetza zaitez:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

 **argia.com**



Osasuna

JABIER AGIRRE

Odol-analisiak ulertzeko gakoak

ODOL-ANALISIETAKO zifrak nahaste-borrastea besterik ez dira izaten sarritan jende arruntarentzat, baina gaixoaren osasunari buruzko informazio ezin baliagarriagoa egon ohi da bertan medikuarentzat. Analisiak hobeto ulertzeko gakoetako batzuk ikusiko ditugu ondoren.

Odol-analisi batean zelula eta substantzia asko, eta oso diferentek, neurtu eta kontrolatu ohi dira, baina oraingoan odoleko zelulen kontuak azaltzen saiatuko naiz. Odolak zelula mota asko dauzkan arren, hiru kategoría nagusi hauetakoak izango dira guztiak: globulu gorriak, globulu zuriak edo plaketak.

Globulu gorrien kontaketa

Hemograma ere esaten zaio. Odolean dauzkagun hematien kopurua ematen digu, eta bere balio normala (aurrerantzean BN) 4-5 milioi artekoa da gutxi gorabehera milimetro kubo bakoitzeko. Hortik beherako zifra batek anemia adieraz dezake.

Hematokritoa

Globulu gorriek odolean okupatzen duten bolumenaren portzentajea adierazten duen zifra hori -BN %38tik %49ra bitartekoa da- puripurian dago gaur egun komunikabideetan, eta txirrindularien kasuan lasterketatik kanpo geratzeko arrazoia izatera irits daiteke, maila %50etik gora igotzen bada. Kasu horretan, odola oso "lodia" izaten da, oxigeno asko daramalako, baina horrek mesede egin baino gehiago, ondorio kaltegarriak izan ditzake kirolariaren osasunerako.

Hemoglobina

Molekula hori ezinbestekoa da oxigenoa gorputz osora garraiatu ahal izateko, eta normalean 13-16 gramo izaten dira odol dezilitro bakoitzeko.

Hematien balio horiek analisi batean maila normaletik behera agertzea anemiaren adierazgarri izaten da gehienetan, eta horrek zure odolean oxigeno gutxiago dagoela adierazten

du, eta zuk energia gutxiago izango duzula seguruenik. Hala ere, anemiaren diagnostikoa ezarri aurretik, kontuan hartu behar da emakumeengan badirela anemia izateko arrazoi bereziak, hilekoa batez ere.

Globulu zuriak edo leukozitoak

Gorputza kanpoko eraso eta infekzioetatik babestu eta defenditzeko lanetan aritzen diren zelulak dira. Horien BN 3.500-11.000 bitartekoa da mililitroko. Behera egiten dute hezur-muinak ez baditu zelula horiek sortzen, edo infekzio larrien eta zenbait medikamenturen ondorioz.

Leukozitoen artean, hainbat familia bereizten dira: neutrofiloak (leukozito guztien %38-80 dira baldintza normaletan, eta bakterioek eragindako infekzioen bat dagoenean egiten dute gora), linfozitoak (leukozito guztien %15-49) nahiz monozitoak (osoaren %13ra arte), leuzemia, tumore eta birus edo parasitoek eragindako infekzioetan gehitzen direnak, eta eosinofiloak (leukozito guztien %1-4 besterik ez dira, eta horiek gora eginez gero, parasitoak, alergiak edo asma dagoela susmatu behar da).

Plaketak

Koagulaziorako ezinbestekoak diren zelula horien kopurua 150.000-400.000 bitartean egon ohi da, milimetro kuboko. Globulu gorriak eta leukozitoak baino txikiagoak diren plaketen kopurua maila normaletik behera dagoenean, odola ez dela behar bezala koagulatzen, alegia, odoljarioak ez dira behar bezala "ixten".



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Fariseuen arrosak

GYSBERT VERBEEK lore-zaleak (lore-hazlea esan beharko ote nuke?) lore sinple gorri-laranjak jori ematen zituen arrosa berria lortu zuen 1958an. Bizitoki zuen Aalsmeer hiria ordutik hona ederki aldatu da. Arrosa horri “Miracle” izena eman zion, bere herriari gertatuko zitzaiona igarritz agian...

Aalsmer ezaguna da Herbehereetan. Garai batean zuhaitz muintegiak ugaritu ziren bere lursail zelaietan. Gero marrubi ekoizpena zabaldu zen eta hauekin batera 1880an loreak, moztu eta sortaka saltzeko loreak ekoiztera jo zuten bertako lurrari etekina kentzeko asmotan. Ekoizpen hauek denak alatan eta gabarratan Amsterdamera eramaten zituzten saltzera. Ekoizle onak izan eta landare eta, inondik ere, hauen fruitu onak eskaintzen, erosleak gabarren zain egon ordez Aalsmer bertara joaten hasi baitziren erosketak lotzera. Bertako kafetegietan egiten zituzten enkante eta erremateak, kandelak. Ekoizleentzat bezala erremategi-leentzat irabazpide errentagarri bihurtu ziren loreak herrian.

Aldamenean Schipolgo aireportua izateak lore trantanteen emana ugaritu zuen, baita honetarako bereziki diseinatutako eraikin erraldoi bat egin ere. Erraldoia eta egokia, ustez. Hainbestearainoko fariseu pila, laster ziren kabituz ezinik. 1999an sekulako tratu-etxe



WWW.FLOWERSOFTHEWORLD.COM

berria jaso behar izan zuten, 999.000 metro koadrokoa, alajaina; munduko merkataritza-etxe handiena. Geroztik munduko loreen hiriburua deitzen zaio. Egutero goizeko seietan izaten den lore eta landare errematea ikusgarria da. Turistak erakartzen dituen ikuskizuna. Urtean 400 milioi idi-bihotz esportatzen da bertatik. “Miracle” bezalako arrosa aldaera guztietatik, aldiz, miliar batetik gora ale... Era berean, mundu osoan ekoizten den landareen gehiengoa bertara etorri, hor saldu-erosi eta berriro munduko beste edozein tokitara joango da. Tratuaren habia da. Fariseuen loreak.

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, sekula gertatu gabeko arazoa daukat lekekin. Landareak ondo atera ziren, baina pixkanaka horitzen eta ihartzen doaz gehienak, eta ez da hezetasun eskasia. Zurtoinak azala besterik ez du, hutsa dago, ihartua. Ateratako biren zainetan zomorro handi xamarak topatu ditut, 1,5 zentimetro luze, bi milimetro zabal, gogorak eta ehunka hanka dituzte. Zulo batzuetan berriz erein eta atera dira, baina beldur naiz, denak atera eta berriz ereinez gero, antzekoa gertatzeaz.

Luken Goia (Zubieta, Gipuzkoa).

Iepa Luken, bi arrazoi aurreikusten ditut: batetik, simaur gehiegi edota simaur berria, behar bezala ondu gabea. Lekaduna izanda, nitrogenoa biltzen du airetik lurrera eta simaur asko badago ezin bizi da behar bezala... Bestetik, ureztaketa gehiegizkoa, edo ordu txarrean, eta landarearen lepo aldea egosi egiten da. Plastikoa erabiltzen denetan areagotu egin daiteke. Konponbide txarra du horrek. Plastikoa edo ehun geotermikoa altxatzeak lagunduko luke. Kristoren lana. Altxatuz gero karea bota eta ureztatze on-on bat. Ez da soluzio erraza...

Babeslea: Alkartasuna



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarraren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Biosphere 2: Anaia Handien aita zientifikoa



Biosphere 2 kanpotik eta barrutik. Duela 25 urte hasi ziren instalazioak eraikitze lanak, eta duela 20 abiatu zen esperimentu erraldoia.

ORACLE, ARIZONA (AEB), 1991KO IRAILAREN 26A. Zortzi zientzialari 1,27 hektareako ekosistema artifizial batean sartu ziren, eta, hala, Biosphere 2 proiektua martxan jarri zuten. Esperimentuak helburu hirukoitzaz: ekosistemetako elkarreragin sare konplexuak ulertzea, espazioaren kolonizazioan biosfera itxiek izango luketen bideragarritasuna aztertzea eta, Lurrari kalterik eragin gabe, biosfera manipulatzeko. 200 milioi dolarreko biosferak oihan zati bat, ozeano txiki bat, mangladiak, sabana, deserta, labore lurra eta giza habitata zituen. Hermetikoki itxita zegoen eta zientzialariek ezin zuten handik irten, biosferak kanpoko laguntzarik gabe funtzionatu behar baitzuen. Lehen misioan taldeak bi urte eman zituen egituraren barruan, eta bigarren misio bat ere abiatu zen 1994ko martxoan, hamar hilabete iraun behar zuena.

Hasieratik CO₂ mailak ezohiko gorabeherak izan zituen eta oxigenoak nabarmen egin zuen behera; hasi eta hamasei hilabetera oxigeno portzentajea %14,5ekoa zen, gutxi gorabehera 4.000 metroko altueran izan ohi dena. Animalia espezie

asko hil egin ziren, eta beste batzuk, inurriak esaterako, gehiegi ugaltu. Ekosistemaren oreka hautsita zegoen, eta gizakiei ere eragin zien horrek, nonbait.

Bigarren misioa hasi eta hilabetera lehen misio-ko bi kidek sabotaje ekintza burutu zuten, burbui-laren ate guztiak irekita. Eta orduan azaleratu ziren ia hasieratik zientzialarien artean izandako ika-mika eta ezinikusiak. Lehen misioan taldea bitan zatitu zen, lagun minak izandakoak etsai bihurtu ziren, eta elkarri arauak hautsi izana leporatzen hasi ziren. *Time* aldizkariak zioen: "Datuen manipulazioak, jakiak ezkutatzeak eta kontrabandoak sinesgarritasuna hautsi du. Bi urteko autoaskitasun esperimentera 200 milioiko engainu bihurtu da".

Porrot garestizat jo izan den arren, Biosphere 2k ehunka zientzia-ikerlan ahalbidetu du. Hala ere, publikoaren interesa kideen eskandalu pertsonalek piztu zuten, ez lorpen zientifikoek. Handik urte gutxira hainbat pertsona espazio itxi batean sartzeko formulak arrakasta handia izango zuen telebistan, eta realityak Biosphere 2ko inurriak bezala ugalduko ziren.

Arrastoak

Arroz laboreak Txinan sortu ziren duela 8.000 urte

ARROZAREN GENOMAREN sekuentzia aztertu eta arroza duela 8.000 urte baino gehiago Txinan, Yangtze haranean, lantzen hasi zirela ondorioztatu berri dute. Orain arteko tesiaren arabera, arroz laboreek jatorri bikoitza zuten: India eta Txina. Baina AEBeta-

ko hainbat unibertsitateetan egindako ikerketen arabera, Indian, Ganges ibaiaren haranean, askoz beranduago hasi zen nekazaritza jarduera hori, duela 3.900 urte inguru, txinatar merkatariek edo nekazari immigranteek eramanda.



Ricardo Aronskind

«Brasilek gehiago begiratu behar dio Latinoamerikari»

Latinoamerikaren integrazioa hizpide, Ricardo Aronskind ekonomialari eta ikerlariarekin elkartu gara Buenos Airesen. Unibertsitate irakaslea da hiri horretan eta Argentinako Gobernuak aholkulari gisa deitu izan du Latinoamerikaren integrazioari buruzko erabakietarako.

Testua eta argazkiak:

GORKA BERASATEGI

Latinoamerikako hainbat estatuburuk eskualdeko integrazioaren beharraz hitz egiten dute. Etorkizunean garapenari eusteko ezinbestekotzat jotzen dute. Zergatik da hain premiazkoa?

Aspalditik datorren kontua da hau. 50eko hamarkadan, CEPAL erakundeak, pentsamendu latinoamerikarraren zentro erraldoi modukoa izan zenak, esan zuen Latinoamerikako herrialde bakoitzean industria bultzatzeko politikak martxan ipintzearekin ez zela nahikoa. Baizik eta, estatuek merkatu handi bat eraiki behar zutela, enpresa latinoamerikarrak

tamaina kontinentala lortu eta nazioarteko gainontzeko enprekin lehia ahal izateko.

Bide horri jarraituz sortu ziren ALAC (Merkataritza Libreko Elkarte Latino Amerikarra) eta ALADI (Integrazioarako Elkarte Latino Amerikarra). Merkatu bateratuaren aldeko baldintzak sortzeko asmoz eginko bi saiakera izan dira baina emaitza oso mugatuak lortu dituzte. Ondoren, 90eko hamarkadan heldu zen MERCOSUR (Hegoaldeko Merkatu Komuna) eta oso astiro ari da integrazioarako erakundeak sortzen.

Zeintzuk dira Latinoamerikaren integrazioa bizkortzeko nazioarteko tse-tuinguruan ikusten dituzun arrazoiak?

Txinaren gorakada indartsua fakto-reetako bat da, hego-ekialde asiarraren bilakaera dinamikoa beste bat, eta batez ere, 2008ko krisiaren leherketak herrialdeen arteko lehia biderkatu izana. Krisia kudeatzen ari diren moduan, nazioarteko eskaria ez da hazten ari eta horrek beste herrialdeetako eskariak eskuratzeko tentsioak handitzen ditu. Merkatu berriak lortzeko lehia handitu egin da eta Latinoamerikak garrantzi



eskaseko kontuak eztabaidatzen murgildurik jarraitzen du, integrazioa bizirauteko baldintza ezinbestekoa dela garbi izan beharko lukeen uneotan. Bateratze ekonomiko sakonagorantz joan behar dugu, existitzen diren eta integrazioaren aurka lobbya egiten duten interes sektorial anitzak alde batera utziz.

Barneko ala kanpoko presioak dira?

Barnekoak. Brasilgoak, Argentina-koak... Adibide bat jarriko dizut. Paraguaiako senatua oztopatzen ari da Venezuela MERCOSUREn parte izatea. Venezuelak MERCOSUREn sartzeko eskaria egin zuen, ekarpen oso garrantzitsua litzake batasuna eta integrazioa bultzatzeko eta soilik interes ideologikoengatik, nola baiteko antichavismo sutsu baten-
gatik, ez zaio MERCOSUREn sartzen uzten ari.

Zein ekarpen egin ahalko luke Venezuelak MERCOSUREn sartuko balitz?

Venezuela Chavezetik harago pentsatu beharra dago. Nire ustez, berak mistika berezia atxikitzen dio integrazio latinoamerikarrari, gainontzeko herrialdeei falta zaien perspektiba historikoaren barnean. Baina, Chavez egon ala ez egon, Venezuela petrolio herrialde handia da eta eskualde osorako erreserbak bermatu ditzake. Venezuela eta Argentina trukean ari dira egun. Argentinak Venezuelaren industrializazioan laguntzen du eta Venezuelak baliabide energetikoz hornitzen gaitu. Eskualdean ere truke konkreturako aukera asko daude. Populazioa gehituko lioke elkarteari eta nazioartean pisu handiagoa emango liguke.

Elementu ideologikoa aipatu duzu traba gisa. Latinoamerikako herrialdeen artean, erro politiko guztiz desberdinetako gobernuak daude agintean. Oztopo handiak sortzen ditu horrek integrazio ekonomikoa ulertzeko eran?

Bai, guztiz. Lubaki sakona dagoela iruditzen zait merkatu latinoamerikarraren aldeko apustua egiten dutenen artean, batetik, eta dena nazioarteko merkatura bideratzen dutenen artean, bestetik. Txileren adibidea garbia da. Nazioarteko prentsaren

aldetik goraipatua da oso. Hain zuzen, herrialde azpigaratuaren eredu delako. Kobre saltzen du, egurra saltzen du, fruta, arraina... eta hori zoragarria da. Hori da munduak Latinoamerikari eskatzen diona.

Orain arte hartu diren erabakiekin zein neurritaraino garatu da herrialde latinoamerikarren integrazioa?

Eremu ekonomikoan oraindik nahiko azalekoa da integrazioa. Izan ere, arau orokorrak hausten dituzten salbuespen asko gertatzen dira. Bestalde, oraindik ez gara igaro eszenatoki komertzial soil batetik ikuspegi planifikatuagora, non kontzienteki erabaki beharko dugun zein adar industrial garatuko duen estatu bakoitzak eta blokearen barruan zertan espezializatuko den.

"Latinoamerikak 200 milioi biztanleko merkatu erreserba du, ez da ekonomiara integratua izan, baztertuak daude, eta hori lotsagarria da"

Eremu politikoan ere nahiko atzeratuta gabilta. Gubernuburu edo Ekonomia ministroen esku-hartzearen menpe egongo ez diren erakundeak behar ditugu. Barne arazoak adituz osaturiko epaimahai batek kudeatu behar ditu eta hark izan behar du autoritatea. Gai oso delikatua da eta hor arazo nagusia Brasilen jarrera da. Brasilek oso garrantzitsu ikusten du bere burua eta, hein batean, hala da. Baina uste dut ez duela horrenbesteko pisuarekin ikusi behar bere burua, nazioartetik Brasilenganako iritzi okerra dagoela iruditzen zait.

Brasil azpigaratutako herrialdea da. Aukera oso interesagarriak dauzka baina oraindik azpigaratutako herrialdea da, Mexiko den moduan. Brasilek desberdintasun sozial erraldoiak ditu, geografikoak, produktiboak... Brasilgo ekonomistek Belindia deitzen zioten haien herrialdeari. Belgika eta Indiaren arteko nahasketa. Lularen agintaldien aurretik izan zen hori, baina azpigaratutako herrialde

baten ezaugarriak mantentzen ditu oraindik.

Zenbait analisten ustez integrazio prozesuaren atzean Brasilen hegemonia nahia dago. Nazioartean potentzia gisa aurkezteko, eskualdea bere jauzi plataforma bihurtzeko asmoa.

Egiatik badu zerbait uste horrek. Batez ere, eskualdeko gainontzeko herrialdeak haziko badira. Brasili Argentina interesatzen zaio Argentina hazten den neurrian, eta alderantziz. Argentina ekonomikoki hankaz gora baldin badago ez zaio interesatuko.

Nire ustez Brasilek askoz gehiago begiratu behar dio Latinoamerikari. Munduko merkatua ez da xamurra izango datozen urteetan. Ez da erraza izango AEBetako merkatuan sartzea eta are gutxiago Europar Batasunekoan. Guk Latinoamerikara begiratu behar dugu eta Brasilek ere bai. Ez nazioarteko proiektzioaren euskarri gisa, baizik eta helburu gisa. Merkatu guztiak ari dira haien eskaria murrizten, ez dakit zergatik erosi beharko liguketen guri. Guk 550 milioi pertsonako merkatua indartu behar dugu.

Azken urteetan Latinoamerikako estatuek datu makroekonomiko positiboak izan dituzte eta hazkundeari eustea lortu dute. Aldiz, datu horiek ez dute islarik izan, proportzionalki behintzat, biztanleriaren gehiengoaren bizi baldintzen hobekuntzan. Eskualdeko integrazioak hobetuko al du integrazio soziala?

Estatu bakoitzak pobrezia modu nabarmenean murriztuko balu, integrazioarako eszenatoki hobea izango genuke. Latinoamerikak 200 milioi biztanleko merkatu erreserba du, egun merkatutik kanpo daudenak, baztertuak. Ez dira ekonomia latinoamerikarrera barneratuak izan eta lotsagarria da hori.

Latinoamerika kontinente bidegabea da zinez. Munduko bidegabeena. Aberastasun guztia gizarteko gutxiengo murrizt batek biltzen du eta aberastasun hori eskualdetik kanpora bidaltzen dute. Venezuelan, Mexikon, Argentinan, Brasilen eta Txilen ere gertatzen da hori. Karibera, Suitzara edota beste paradisu fiskaletara bidaltzen diren abe-

rastasun kopuruaren datuak izugarriak dira.

Finantza arloari dagokionean, asko hitz egin da nazioz gairako erakundeak sortzeko beharraz.

Azken asteetan ideia oso interesgarriak entzun dira. Adibidez, dolarra Latinoamerika barneko transakzio moneta gisa ezabatzea. Antzeko zerbituetan hasiak dira Argentina eta Brasil haien arteko merkataritza operazioetan. Eskualdera zabaldu daiteke neurria. Oso garrantzitsua da moneta subiranotasun maila altuagoa bilatzea. Oso garrantzitsua da baita ere Hegoaldeko Bankua sortzea. Krisiaren kontrako fondoa egin beharraz ere hitz egin da. Espekulazio kapitalen ondorioz desorekatzen diren herrialdeak laguntzeko fondoa litzake.

Horrez gain, oso mesedegarri litzake haien erreserbak atzerrian dituzten herrialdeek diru hori bultzatzea. Eromena da. Ekar ditzagun Latinoamerikara eta erabili ditzagun produktiboki!

Honduraseko estatu kolpeak edota Ekuadorreko kolpe saiakerak eskualdeko herrialdeen subiranotasuna ezbaian jarri dute. Gertakari horiek erantzun bateratua jaso dute Latinoamerikako estatuen partetik. Integrazio politikoan aurrerapausoa al da?

Beste gertakari bat gehituko nuke. Boliviako Santa Cruz eskualdearen independentzia saiakera. Hura ere UNASUREk (Nazio Hegoamerikarren Batasuna) indargabetu zuen.

Egiaz, sekulako ezustekoa izan zen jarrera bateratu hori. Latinoamerikan ez baita ohikoa. Brasil eta



"Oraindik zentzugabeko nazionalismo asko dago Latinoamerikan, integrazioaren aurkako jarrera sortzen dutenak. Jarrera hori europarren edo estatubatuarren menpeko harreman kolonizatu bihurtzen da".

Argentina, adibidez, Bolivian gertatu izan diren kolpeen atzean egon izan dira. Gaur, ordea, harremanak prozesu demokratikoak babesteko erabiliak direla ikusten dugu. Demokraziarik gabe ondo dakigu diktadoreek, teknokraten eta talde ekonomiko kontzentratuen laguntzaz, AEBen esanetara goberna dezaketela.

Latinoamerika batua ikustearren ametsa zein neurritan dago zabaldua egun jendartearen?

Ez dut uste oso zabaldua dagoenik. Ez dut esan nahi potentzialki zabaldua ez dagoenik, baina Bolivarren ametsak Latinoamerikako historia berreskuratzea eskatzen du, berrirakurtzea, ulertzea, Latinoamerikako gainontzeko lurraldeak ezagutzea

eta hori arlo askotan oso ahula da oraindik. Esan dezagun garbi: globalizazioa eta neoliberalismoa anti-historia dira.

Orain bada historiaren indartze bat. Zeresanik ez Chavezek bere herrialdean egin duenari buruz. Bera behin eta berriz itzultzen da Bolivarren pentsamendura. Hala ere, oraindik zentzugabeko nazionalismo asko ikusten ditugu Latinoamerikan, jendearengan integrazioaren aurkako jarrera sortzen dutenak. Gero jarrera hori europarren edo estatubatuarren menpeko harreman kolonizatu bihurtzen da. Askok dago egiteko oraindik, espiritu hori berreskuratzeke, integrazio latinoamerikarrari behar duen arima emateko. Integrazioa merkataritza eta negozioa bakarrik izan behar bada, ez da izango. ■

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kutxa Bank

Pribatizaziorako pauso berria emango dute EAEko kutxek

2012ko urtarrilaren 1ean jarriko da martxan euskal banku berria: Kutxa Bank. EAEko hiru aurrezki kutxak (BBK, Kutxa eta Vital) fusionatuz sortuko da, irailean egingo diren batzar nagusietan administrazio kontseiluek hartutako erabakiak onartzen badira, behintzat. Banca Cívica, berriz, Nafarroako Kutxa barruan hartzen duen bankua, irten da dagoeneko burtsara.

DANIEL UDALAITZ

KUTXA BANK SORTZEAR DA. 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen, arau, merkataritza eta lege eginkizunak konplutuko dituzte; aktiboak eta pasiboak bereizteko eta erakunde berrira eramateko prestakuntzak amaituko dira; eta integrazioa zehatz-mehatz planifikatuko da. Vital eta BBK-ko batzar nagusiak irailaren 16an izango dira eta Kutxakoa hilaren 23an.

Banku berria laugarrena izango da Espainiako Estatuako aurrezki kutxa fusionatuen rankingean, gutxira 76.000 milioi euroko aktiboekin. Aurretik, Bankia (328.000 milioi euro), La Caixa (285.000 milioi euro) eta Caixa Catalunya (77.000 milioi euro) daude. Banca Cívica dator ondoren, Nafarroako CAN barne hartzen duen bankua, 75.000 milioi euroekin.

Bi kutxen arteko fusioa, hasteko?

Ez da baztertu behar aurrezki kutxak fusionatu eta Kutxa Banken integrazteko eragiketa bi kutxa fusionatuz hasteko aukera. Litekeena da batzar nagusi horietan edo haietako batean ezustekoren bat egotea, eta azkenean hiru aurrezki kutxetako bik erabakitzea fusioarekin eta aipatutako bankua sortzearekin aurrera jarraitzea. Testuinguru horretan, ezin dugu alde batera utzi Gipuzkoako Kutxak ez onartzea eragiketa batzar nagusian, hori gerta daiteke. Hala gertatuko balitz ere,



Carlos Zapatero (Vital Kutxa), Xabier Iturbe (Kutxa) eta Mario Fernandez (BBK).

BBK-k eta Vitalek fusionatzeko eta aipatutako bankua sortzeko prozesuarekin jarraitu nahi dute, ziurtzat jotzen baita bi horiek eragiketa onartuko dutela. Hori adierazi zuen, behintzat, BBK-ko presidente Mario Fernandezek, joan den uztaillean. Haren ustez, “zentzuzkoa da biren arteko fusioarekin” hastea, kutxaren batek ez badu hiru erakun-

Lau urteko jardunaren ondoren, banku berriak aukera izango du burtsara irten eta pribatizatze

deak integrazteko “nahikoa babes” lortzen batzar nagusian. “Ez litzateke zentzuzkoa izango berriro hastea” gehitu zuen Mario Fernandezek. Beraz, “orain arte egin duguna baliagarria izango da. Biren artean hasiko ginateke oraingoz, ziur bainago, hala gertatuko balitz, gero beste fase bat egongo litzatekeela”.

Egia esan, aukera hori aztertu zen hiru administrazio kontseiluek Kutxa Bank sortzea erabaki zuten ere. Horregatik, EAEko hiru kutxetako presidentek joan den ekainean notarioaren aurrean sinatu zuten integrazio kontratuak klau-

Banca Cívica, edo bankutzea hasi zenean

Nafarroako Kutxak, CANek, Hego Euskal Herriko aurrezki kutxen bakuntze prozesua hasi zuen. Gero, EAEko aurrezki kutxekin integratzeko aukera baztertu eta, presazko finantziario beharreatatik agian, Espainiako beste aurrezki kutxa batzuekin fusionatzea erabaki zuen: Andaluziako Caja Solekin, Caja de Burgoekin eta Caja de Canariasekin, hain zuzen.

Aurtengo apirilaren 7an bere bankua sortzea erabaki zuen, Banca Cívica izenekoa. 75.000 milioi bat euroko aktiboak ditu guztira Banca Cívica, Kutxa Bankek edukiko lituzkeenak baino gutxiago. Uztailaren 20an pribatizatu egin zen, burtsara irtetean. Baina, horren

ondorioz, 1.342-1.889 milioi euroan murriztu du balioa; hau da %50tik %60ra bitartean murriztu da Banca Cívica-ren kontabilitate balioa, 2.788 milioi euroan baloratua. Horregatik, %40tik %47,5era igo behar izan du burtsara ateratako kapital sozialaren ehunekoa, funts gehiago lortu ahal izateko.

Eragiketa horrekin, Banca Cívica-ko arduradunek inbertitzaile pribatuen dirua eskuratu nahi zuten, 600 milioi eurotik 945 milioi eurora bitartean, hain zuzen. Kopurua txikiagoa edo handiagoa izan liteke, eragiketaren azken prezioaren eta bolumenaren arabera.

sula loteslea du: hiru erakundeetako batek atzera egingo balu ere, prozesua bertan behera ez uztea. Aukera hori gehitu zen, ez dagoelako argi zein izango den Gipuzkoako Kutxako batzar nagusiaren emaitza. BBKren eta Vitalen kasuan, bermatuta dago emaitza aldekoa izango dela; izan ere, EAJ, PSE eta PP ados jarri ziren CCOO sindikatua-rekin, eta gehiengo dute bi batzar nagusi horietan.

Bilbon egoitza

Kutxa Bank berriaren egoitza Bilbon egongo da, banku berriaren pisu ekonomiko-finantzario handiena BBK-k jarriko duelako; jardura ekonomiko-finantzarioaz arduratuko da egoitza hori. Bitarteko eta baliabideen jarduerak Donostiako egoitzan egingo dira, eta harreman instituzionalekin eta arauak betetzearekin lotutakoak, berriz, Gasteizko egoitzan.

Hiru aurrezki kutxek banku berrian izango duten partaidetzaren proportzioak honako hauek izango dira: BBKren partaidetza %57koa izango da, Kutxarena %32koa eta Vitalena %11koa. Kasu honetan, BBK-k hertsiki dagokiona baino zertxobait gutxiago hartu du, beste bi aurrezki kutxen mesedetan, biak eroso senti daitezkeen banku berriko Akziodunen Batzar Nagusian duten ordezkariarekin. Nolanahi ere, gai estrategikoak administrazio kontseilu berrian erabakiko dira, eta haren osara bestelakoa izango da. Erakunde bakoitzaren benetako pisu ekonomiko-finantzarioarekin lotuago egongo da osara hori

Datu nagusiak			
	BBK	KUTXA	VITAL
Kapital nagusia*	3.604	1.976	810
Aktiboak*	47.891	19.622	8.643
Bezeroen gordailua*	31.186	18.837	6.420
Etekinak*	257,8	69,4	38,6
Bulegoak	881	347	128
Langileak	4.918	2.589	810

* Milioi eurotan. Datuak 2010eko abenduaren 31koak dira

(akordio politikoan baino hiru puntu gehiago); hau da, kontseiluko 20 kideetatik, 12 BBK-koak izango dira, 6 Kutxakoak eta 2 Vitalekoak.

BBK-k banku berrian partaidetza handiagoa izango duenez, Bizkaiko erakundeak beto eskubidea izango du erabaki estrategikoetan; izan ere, sinatutako akordioaren

arabera, erabaki horiek hartzeko, beharrezkoa izango da gutxienez ere bi aurrezki kutxa ados egotea, eta partaidetza handiena duenak izan beharko du beti horietako bat, hau da, BBK-k. Lau urtez jardunean egon ondoren, banku berriak aukera izango du burtsara irteten eta pribatizatzeke. ■

Personalmente me parece importante.

~~Pertsonalki~~ Niri garrantzitsua iruditzen zait.

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
GAZTELANIA | EUSKARA | INGELESA | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egundatan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Tolosaldeko Euskararen Semaforoa

Blogari umoretsuak probokatzen

Asteburu batean Euskal Herria euskalduntzeko intentziorik ez daukate Tolosaldeko Euskararen Semaforoa (TES) blogaren sortzaileek. Aldarrikapena eta umorea ardatz, euskaldunok zirikatu nahi gaituzte, gure hizkuntz eskubideak beti present izateko.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Tolosaldeko Euskararen Semaforoa

AURTENGO UDABERRIAN, blegean, Herri Urratserako deialdia egin zuten. Hala zuen albisteak izenburua: “Ertzain hauek ere Herri Urratsera joan beharko lukete”. Albiste (audioa zintzilikatu zuten) bisitatuenetakoa izan zen. Herri Urrats gertu zela, ertzainak kamioilari atzerri-tarrekina komunikatu ahal izateko hizkuntza askotarako telefono itzultzailearen berri eman zuten hedabideek. Besteak beste, katalana eta galegoa itzultzeko aukera zeukan tresnak, euskara ez. Herri Urratserako deialdia egiteko, ondoko istorioa prestatu zuten TESeko blogari-ek: Azkaineko kamioilari Andoaingo kontrolean geratu du ertzainak. Garraiolari euskaraz ari zaio eta ertzainak frantsesez esaten dio ez diola ulertzen.

Euskararen aldeko aldarrikapena fresko eta labur egin nahi dute blogaren sortzaileek.

Euskalgintzan ari dira lanean 2009an bloga sortu zuten lagunak. Ofizios beraz, euskararen aldeko jardunean ari dira etengabe, eta afizios ere, eremu horretan zerbait egitea pentsatu zuten. Oso bestelako dinamikak erabilita ordea: blog informatiboa, eztabaidarako, formaziorako eta elkar ezagutzeko gunea egin nahi zuten, batik bat Tolosaldeko (Gipuzkoa) edozein euskalduni interesa dakiokiena, baina “euskararen aldeko jardunean askotan eraikitzen den diskurtso



Blogaren sorreraren berri emateko Tolosaldeko semaforoa horrelako afixekin bete zituzten.

zamatsutik alendu nahi genuen”.

Asmo horrekin semaforoaren kontua asmatu zuten. Alegia, bai beraien albisteak, bai beste edonondik hartutakoak, baita edozein erabiltzailek bidalitakoak kolore gorriarekin, horiarekin eta berdearekin izendatzen hasi ziren. Semaforoa gorrian jartzen bada esan nahi du albiste horrek ez diola batera onik egiten euskarari. Berdea jartzen bada onuragarria da eta horian

geratuko da ez badakigu nola baloratu berria, edo eztabaidarako parada ematen badu.

Euskaldunak zirikatzea da blogaren helburua, semaforoarena horretarako baliabide bat baino ez da. Euskaldunek euskarara tarteko izan dituzten bizipenak jaso nahi dituzte, gertaera zehatzak. Galdera hauexek egin nahi dizkie euskaldunei: Zer gertatu zaizu? Ona ala txarra izan da zuretzako? Gertatutakoa ona bada blogaren bidez zabalduko dute. Txarra bada eskubide urraketa konpontzen saiatuko dira, nahiz eta badakiten, lehen esan bezala, asteburu batean Euskal Herria ez dela euskaldunduko.

Telefono konpainien aferak ederki azaltzen du blogari-ek duten helburua. Euskaldunek telefono etxeekin izandako hizkuntza gatazkei buruzko post-a gai izarra izan zen, hau da, orain arteko bisitatuena. Blogari-ek ez dute uste haien ahaleginari esker telefono konpainiek euskaldunari euskaraz zerbitzua normal-normal ematea lortuko dutenik. Batetik, Eusko Jaurlaritza berak ere emaitza borobilik lortu ez duelako, hitzarmenak egin eta gero horiek gauzatzerik lortu ez duelako, eta bestetik, blogari-ek ustez euskaldunen masa kritiko digitalik ez dagoelako telefono konpainiei presio egiteko. “Horrek ez du esan nahi mundu hori eragin esparrutik kanpo utzi behar dugunik, baina gure xede taldea ez da Movis-

Zein dira blogariak?

Blogaren sortzaileek ez dituzte haien buruak aurkeztu. Diote ez dabiltzala ezkutuan, baina identifikazio argia egiteak ez diola blogari mesederik egingo. Bloga sortzeko ideia izan duenak hala esan digu: "Euskaingintzan ari gara lanean eta ez dugu nahi erabiltzaileek gure ekimena inolako erakunderekin lotzerik, pentsa dezakete 'a, betikoak betikoa egiten...'. Gainera, horrelakotan gertatzen da iniziativa kudeatzen duenaren arabera bestea ez datorrela. Elkarlanerako garaia iritsi da, ez diogu blogari inolako erakunderen izenik jarri nahi, lagun taldea euskararen aldeko ekinean ari gara, eta kito".



Tolosaldeko Euskararen Semaforoko kideetako batzuk, aurpegia estalita.

Kanpotik jasotako ekarpenak ere ez dira izen-abizen errealez sinatuak egoten, erabiltzaileek hala eskatu dutelako. Blogaren kudeatzaile baten hausnarketa ondokoa izan da: "Zer pentsatua ematen du Movistarrek hizkuntza eskubideak errespetatu ez dituelako kexatu den euskaldunak salaketa bere izen-abizenez agertu nahi ez izateak. Euskalduna geldiarazita dago, izena jartzea ere kosta egiten zaio lotsagatik, beldurragatik, jсандak zapalketagatik...".

tar, herritar xumea baizik. Alegia, herritarra hizkuntz eskubideen urraketatik ohartaraztea eta nolabait egotera horien aurka aktibatzea.

Irratsaioa eta kalea

Bloga abian jarri zuten 2009ko garai hartan Tolosako Txolarre Irratian saioa ere egiten zuten. Irrati horrek etena egin du eta aurki berriro irratsaioarekin hastea espero dute. Tolosaldeko Euskararen Semaforoan argitaratutako albisteen errepa-soa egingo dute astero, taldekoen arteko tertulia ere bai, eta Tolosal-

dean euskararen alorrean ari direnei elkarrizketak egiteko asmotan dira.

Herritarra zirikatzea helburu, blogaz eta irratsaioaz harago joan nahi dute, kalea ukitzea nahiko lukete. Ekimen zehatzik ez dute diseinatu, baina ekintza ludikoak, originalak, animaziozkoak dituzte buruan, "ekintza erakargarriak egin nahi ditugu, alaitasuna oinarri eta era berean aldarrikatuz".

Kalera nola ailegatu pentsatzen ari diren bitartean, uda ondoren bloga nola elikatu pentsatua dute. Mugistar telefono konpainia sortu-

Blogeko gai izarrak

- Telefono konpainiak eta euskara: denak ez dira berdin (1.303 bisita)
- Osakidetza eta euskara: zer gertatzen ari den ulertzeko "pista" batzuk (1.000 bisita inguru)
- Horrela erdalduntzen dira euskaldunen eta erdaldunen arteko elkarrizketak (784 bisita)
- Elebide: "Deitu ezazu bihar" (587 bisita)
- Semaforoak urtebete egin du (587 bisita)
- Semaforoak esana: "Ertzain hauek Herri Urratsera joan beharko lukete" (510 bisita)
- Noentiendotarron dekalogoak (500 bisita)
- Zer egin euskaraz gaizki idatzitako karteekin? Negar ala barre? (427 bisita)

ko dute, bezeroari harrera euskaraz baino egiten ez dion enpresa. Erdaldunak deituko du konpainiara, moldatu ezinik ibiliko da langileak euskara hutsean egingo baitio. Gaztelaniaz hitz egiten duen norbaitekin jartzeko eskatuko du bezero gizajoak, baina euskaldunak euskara dakien norbaitekin jartzeko eskatzen duenean gertatzen den bezalaxe, aitzakia piloa jasoko du.

Tolosaldeko Euskararen Semaforoko blogariak hizkuntza eskubideak umorez aldarrikatzen segiko dute. ■

<http://euskararensemaforoa.blogspot.com> helbidean ari dira zirikan blogariak.

Babeslea: Usurbilgo Udala

Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz!

Usurbilgo Udala

Usurbil osasuna atez ate

BAHEA

Paula Kasaresek gipuzkoaeskara.net-en esanak: “Jakina da herri-rik euskaldunenak, IV. Inkesta Soziolinguistikoa arabera, biztanleen %80tik gora euskaldunak dituztenak, txikiak izaten direla. Hala bada, ikuspegi kuantitatibo batetik euskararen egoerarako herri txiki euskaldunak ezer gutxi badira ere, kualitatiboki, hizkuntzaren bizitasunerako berebiziko garrantzia dute. Herri euskaldun horietako eskolei erreparatu nahi diet, herri txikietan eta auzoetan egoten diren landa eremuetako eskola txikiei. Zergatik merezi dute arreta hezkuntza errealtate ñimiño horiek?”

Hizkuntzaren ikuspegitik, hiztun kopuru urria izanagatik, herri euskaldunetan euskara bizi-bizirik dago, belaunaldi guztietako herritarren mintzaira izaten da eta ohiko harremanetan erabiltzen da. Herri txiki horiek hizkuntzaren bizitasunerako beharrezkoak dira, Joshua A. Fish-

manen hitzetan ‘demographically concentrated and intergenerationally continuous’ (‘demografikoki kontzentratuak eta belaunaldien artean jarraiak’) baitira. Horregatik, ‘heartlands of minority languages’ deitu

EUSKOSOZIAL



Eratsungo haurrek Doneztebera joan beharko dute eskolara, lau ikasle baino ez direlako.

izan zaie, hots, hizkuntza gutxituen oinarriak. Gurean, Mikel Zalbide euskaltzainak ‘arnasguneak’ erabil-

tzen du euskara gizarte harremanetan ohikoa duten herri-eskualdeei esateko. Herri euskaldun horietan euskarak bertako mintzamolde eta erregistro jatorrak (hitanoa, soziolektoak...) garbien eta bizien atxiki ditu”.

Berrotza erabiltzaileak tiraka.blog-ea.net esanak: “Duela hilabete batzuk Jauraritza egiten ari zen euskarazko Dekretuari buruz idatzi nuen blog batzuetan. Mezu horretan azpimarratu nuen honako ideia hau: hemendik aurrera ikasle gutxi ikasiko dute A eta B ereduetan, D ereduaren mesedetan.

Ezuste handia hartu dut Dekretuaren zirriborroan hori ere aldatu dutela ikustean: orain B ereduan ikasiko duten euskarazko titulua ere lortuko dute. Akabo Dekretuak zeukan alderdi on bakarra. Kasu honetan batzuentzat garrantzitsua ez da titulua lortzea, baizik eta hizkuntza erabiltzea, eta tamalez Euskal Herrian tituludun izateak ez du bermatzen erabilera”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Armak: ondasun publikoa bidegabeko eralgitzea

Abuztuan notizia eskandalagarria izan da, nahiz eta ez den ia hedatu. *El País* egunkariak argitaratu zuen hilaren 13an: “[Espainiako Gobernuak] Defentsa Ministerioak ordaindu ezin duen 26.000 milioi euroko zorra du armetan eta birnegoziatzen ari da (...) Espainiako Indar Armatek aurrekaririk ez duen modernizazio prozesua hasi zuten azken hamarkadan (...) Munduko arma aurreratuenak dituzte: EF/200 ehiza-hegazkina, Leopard tankea, F/100 fragata... Azkeneko honen borrokarako sistema gai da etorkizuneko misilen kontrako ezkutuaren integratzeko (...) Armagintzako programa berezien faktura osoa 30.000 milioi eurokoa da, Espainiako BPGaren %3 inguru, eta Defentsak oraingoz 5.000 milioi baino gutxiago ordaindu du (...) 27.000 milioi euroko zorretik, 23.000 milioi PPren legegintzaldian egin zen eta 3.000 milioi PSOren bi legegintzaldietan”. Constantino Méndez Defentsa Estatuko idazkari nagusiaren arabera “ez genituzke hartu behar erabiliko

ez ditugun arma sistemak, existitzen ez diren konfrontazio eszenatokietarako eginak, eta larriagoa dena, orduan ez genuen eta orain ez dugun diruarekin erosiak (...) Aurrekontu arduragabe hori posible izan zen Defentsarako gastuek hazkunde handia izan zutelako mende hasieran, 8.500 milioi eurora iristeraino 2008an...”.

Honaino albisteak. Zer gertatuko litzateke enpresa pribatu batean, kudeatzaileek 30.000 milioi euro balio duen zerbait erosiko balute, erabiliko ez dena eta ordaintzeko dirurik gabe? Kudeatzaileak derrepente despeditu eta epaitegietan zigortuko litzukete. Gobernuek, baina, armak erosita ondasun publikoa bidegabe xahutzen dute, eta ez zaie ezer pasatzen! Faktura betikoek jasaten dute gero, “doikuntza sozialen” bidez: langabetuek, langileek eta pentsionistek. Non dago Estatuaren fiskal nagusia?

Juan Mari Arregi

Eta NaBai zer?

IKASTURTE berria zalantza itzelez datorkigu arlo ekonomikoan eta bizitasun handiz politikoan, bietan azken hilabeteetako jario tinkoari jarraiki. Eremu politikoan bakegintzak eta normalizazio politikoak jardunaren ardatzean jarraituko dute eta, apurka, 2011 honetan eman diren urrats erabakigarriak sendotuz jarraituko dutela pentsa liteke.

Hau atzera ezineko egoera dela sustraituago dago gizarteko alor guztietan, orain jokaldia borobiltzea falta da eta etorkizuneko elkarbizitzaren zutabeak ondo finkatzea: gatazkaren ondorioak humanizatu (presoak...), partehartze politikoa bermatu, guztien arteko eztabaida politikoari hasiera eman eta biktimen gaiari serio heldu. Hori da sekuentzia, eta bukaeratik hasi nahi izateak prozesu hori zangotrabatu eta luzatu besterik ez du egingo. Esparru hauek guztietako osagaiak nahasiko dira prozesu luze horretan, jakina, baina hemen bezala txakurrak ortozik dabilte munduan zehar eta, desberdintasunak desberdintasun, bake eta normalizazio prozesuek ezaugarri bertsu asko dituzte.

Gai hauei buruz zerbait badakien Vicenç Fisas-ek *El País*-en joan den astelehenean idatziriko artikulua interesgarria, ETA eta Gobernu dagoeneko erakunde armatuaren amaiera elkarrekin kudeatzen aritu beharko liratekeela dio, hori dela normalena munduan zehar eta hemen ere horretan aritzea espero duela. Zentzuzko berbak, zalantzarik gabe, ona litzateke hala izatea eta azaroan lekukoa hartuko duen PPK ere bide horretan sakontzea. Hori izango da epe laburrean frogatu ahal izango dugun gaitakoa. Gaitza dirudi Bilduren ilegalizazioa eskatzen duena jardun horretan irudikatzea, baina ez litzateke lehenengo aldia izango eta gainera munduan zehar ere bere gisako askok egin dute berdintsu.

HEGOALDEAN berriz ere hauteskundeak gainean ditugula da kontua, eta erabakigarriak izango direla bake prozesuan. Euskal Herrian, gainera, ukitu berezia izango dute, besteak beste, 1996az geroztik ezker abertzaleak ez duelako hauteskunde mota honetan parte hartu: 2004. urtean legez kanpo zegoen jada eta 2000.ean abstentzioa eskatu zuen, euskal herritarrok Madrilen ez genuela ezer egiterik argudiatuz. Beste garai batzuk dira, duda barik, eta oraindik Sorturen legeztatzea airean bada ere, ezker abertzaleak Bildurekin bideratuko du bere botoa.

Ez dagoena argi esparru abertzalearen eskaintza da. Bilduk EAJri egindako proposamena bazterrean geratu ondoren, badirudi Bildu eta Aralar batuko duen eremu soberanista eta ezkertiarra osatuko dela. Ez dirudi EAEn horretarako arazorik izango denik, baina Nafarroan kontua bestelakoa da. Aralarreko zuzendaritzak Bildurekin eskaintza osatzearen aldeko proposamena egin du, baina alderdian banaketa dago gaiari buruz eta hainbat sektorek ez dute begi onez ikusten proposamena. Datorren larunbatean ikusiko da zer gertatzen den Berrioplanon (Nafarroa) egingo duen biltzarrean. Eta behin betiko erabaki ofiziala irailaren

17ko ezohiko kongresuan finkatuko du Aralarrek.

Seguruenik zuzendaritzaren proposamena aterako da aurrera, baina Nafarroan barne eztabaida esanguratsuarekin. Eta hori hala bada, galdera berez dator: zer gertatuko da NaBai-rekin? Egongo da hauteskunde hauetan? Eta nola osatuko da ondoren? Eta talde parlamentarioa eta dituen alkatetzak? Erantzun hauetako batzuk irailaren 4an ezagutu ditzakegu, egun horretan aurkeztuko baita Zabaltzen, NaBai-ko independenteek osatutako egitura politikoa. EAJ bera baino erabakigarriagoa da Zabaltzenek egin dezakeena, eta hauteskunde hauetan Aralarrik gabe Nafarroako esparru politikoan bere eskaintza mantentzeko ere, etorkizunari aurre egitea gaitza izan dezake.

Oinarrian eztabaida historikoa dago: ea nola garatzen diren Nafarroaren izaera berezia eta bere estrategia politikoa propioa, eta ea hori nola ezkontzen den EAEko –eta Euskal Herri osoko– gainerako estrategiekin. Eta ea nola lotzen den hori Nafarroako sektore baskista eta ezkertiarrekin. Hori izan da bere sorreratik NaBaik abertzaletasunari egin dion ekarpen nagusia eta hori da, besteak beste, abertzaletasunak kontuan izan beharko duena.

Betiko hausnarketa hauek ditu abertzaletasunak Nafarroan eta, historiako gizarte ordezkaritza eta ordezkaritza instituzional handiena lortu ondoren, posizio onean dago hausnarketa hau lasaitasunean egiteko; akaso, hori da oraindik orain erronka nagusietakoa, eztabaidak eta ikuspegi anitzak jardun politikoan lasaitasunez txertatzea. Kontrakoa izango zela uste banuen ere, iragan maiatzeko hauteskundeetako giro orokorra eredugarria izan zen zentzu horretan.

Oinarrian eztabaida historikoa dago: ea nola garatzen diren Nafarroaren izaera berezia eta bere estrategia politikoa propioa, eta ea hori nola ezkontzen den EAEko –eta Euskal Herri osoko– gainerako estrategiekin.

PELLO ZUBIRIA

Londres 2011-08: ekonomia izozten eta kaleak sutan

Ingelesak luzaz oroituko dira 2011ko abuztuko egun beroez, kaleko istiluak, komertzioak sutan, arpilaketak... Zer gertatu da, ordea, Londresen? Eztabaidan ari dira ea neoliberalismoak txirotasunera kondenatuen errebolta izan den, gaizki hezitako gazteen jolas arriskutsua edo etorkizunik gabeko belaunaldien purrustada.

DAVID CAMERON LEHEN MINISTRO kontserbadorea ziur dago Ingalaterrako hiri nagusietan abuztuan gertatu diren liskarren jatorriaz eta horientzako erremedioez. Gaizki hezitako gazte batzuek, eskubideak bai baina betekizunik ez daukatela uste dutenek, une batez errazera jo ei dute haien kontsumo irrika asetzeko: agintearekiko begirunerik gabe, jolaserako kiskali dituzte bazterrek eta artaldearen babesan lapurretan aritu. Ondorioz, Britainia Handiko estatuak pertsegitutako ditu, aurkitu, epaitu eta gogor zigortuko. Gazte kriminalitate afera masibo bat, ez besterik. Ez krisirik, ez bazterketa-rik, ez politika ekonomikorik.

Baina *toryen* eta oro har Europako iritziaile sistemazaleen esplikazioak sinplistikak diren moduan –*Financial Timesen* batek kontsumismoak gidatutako liskar izendatu ditu–, istiluetan politika neoliberalaren aurkako matxinada ikusi nahi luketen batzuen argudioak ere hankamotz geratu dira. Bistakoa da Londresko arpilatzaileek Greziako kale borrokalarien antza gutxi zutela, are gutxiago Madrilgo *indignatuena*.

Literatura soziologiko aberatsa sorrarazi du Ingalaterrako abuztu beroak prentsan. Merezki du horietan aipatu diren osagai batzuk kontutan edukitzea, zeren eta luzerako gainerratu zaigun krisi ekonomikoan

barrena, lehen Parisen eta orain Londresen piztu eta zabaldu direnak bezalako suteak Europan haboro izango baitira aurrerantz.

Ongizate gizartearen krisi sakona da drama honetako eskenatokia. Britainia Handiko Gobernuak azken urtean esku batez BEZa %20ra igo die herritarrei, eta besteaz mozketak handiak egin eskoletan, polizian, programa sozialetan eta oro har inbertsio publiko den guztian. Baina langile mugimenduak borrokaz eta sozialdemokraziak botoz lortutakoen galera luzatzen doa azken hamarkadotan, Britainia Handian Margaret Thatcherren garaietatik, eta olatuari aurre egingo dion ezker sendorik ez da ikusten. Oposizioa ahula da indarrez, eta batez ere argudioz, neoliberalismoa hain da nagusitu ideologietan ere.

1960ko hamarkadatik AEBetan ikusi bezala eta geroztik Ingalaterran bertan, Frantzia eta abar, une berezi batzuetan lehertu egiten da sistemak bazterrerako kondenatutako jendeen egonezina. Sarritan agintarien –zehazki poliziaren– desmasia bat da eztanda eragiten duena. Londresko Tottenhamen Mark Duggan poliziek kalitzea. Metxa sututa, azkar zabaldu dira garrak.

Suak, orduan, eragile dituen gazteen atmosfera dauka. Hizkera, janzkera, baita musika ere. Ingalaterrako

Kanadako *National Post* egunkari kontserbadoreak sarean ipinitako irudi honetan gazte bat ageri da, zapiz estalirik aurpegia eta birra bat eskuan, Birminghameko kalean sutan dagoen autoaren aurrean. Poliziak –liskarrak honetatik piztu ziren– hil zuen Mark Duggan-ez gain, abuztuaren 6tik 10era arteko istiluetan bost pertsonak galdu zuten bizia, saltsan zebiltzan gazteetako batzuen esku. 14 herritar eta 186 agente zauritu zituzten. 100 etxebizitzaz goiti erre ziren, Tottenham Hale saltoki historikoaz eta Sonyk Enfielden zuen biltoki erraldoiaz gain. Aseguru etxe britainiarrek kalte materialei 200 milioi liberako balioa kalkulatu diete. Poliziak 3.100 pertsona atxilotu zituen, horietatik 1.100 eramanez epaitegiataraino. Hein batean alderatzeko gisako liskarrak Ingalaterran 2001ean eta 1981ean gertatu ziren.

rioten soinu-banda posibleez idatzi duenik bada. Belaunaldi bakoitzak baino auzune edo tribu bakoitzak adierazten ditu sentsazioak bere eredu estetikoan. Honek zailago egiten digu zaharragoi matxinadaren barrunbeak entelegatzea; beti izan da berdin.

Errebolta hauek belaunaldi arazoa ere bai baitaramate osagai. Kontutan edukitzeko analisia egin du honetaz Craig Berryk *Open Democracy* gunean: *Rioting youth? Blame the baby boomers and the state they created* (Gazte istilutsuak? Errua aurreko belaunaldiena eta antolatu duten estatuarena da).

Heldu gazteen garrak

Ingalaterrako istiluetan gehienik 16-30 arteko gazteek hartu dute parte, enplegurik eskuratzeko itxaropenik ez dutenek eta gurasoena baino bizimodu txarragoa edukiko dutela seguru daudenek. “Frustrazioa haserre bihurtu zaie ikusi dutenean eliteko jendeak, batik bat bankeroek, beren aberastasuna erakusteko duten lotsagabekeria”.

Gazte liskarzaleak bai, baina ez gaztetxoak. Istiluetan nerabeak baino ugariagoak omen ziren heldu gazteak. Hau loturik dago, hala uste du Berryk, helduaroan osoki sartzeko adina atzeratzearekin.

Badirudi hau XXI. mende hasie-



rako berezitasuna dela. Gurasoen-gandik alde eginda norbere buruaren jabe instalatzeko adina berandutu egin zaie gazteei. Kriaren larriagotzearekin, enplegua nahiz etxea eskuratzeko aukerak urrundu. Hein berean berandutu zaie gazteoi, antza, osoki helduaroan sartzeko eguna.

Garaiotako beste berezitasuna da dirudunen latsagabekeria. Owen Hatherley kazetariak *Look at England's urban spaces. The riots were inevitable* artikuluan deskribitu du etorkizunik gabeen erreakzioa: "Entzun liskarzaleek kazetariari esaten: 'herri osoa sutan dago, *tio*', 'aberrats jendeari erakutsi diogu guk hemen egin dezakegula nahi duguna'. Sistema gogortu ahala klase ertain zuriko umeek baizik ezin dute esku-

ratu ikasketa. Bestalde, denek dakite poliziak eta parlamentariak eskupeko dirua jasotzen ari direla, parlamentariak gastuen aitzakiatan diru publikoa ostu dutela. Etsenpluari jarraitu diote. Lapurreta garaia da. Aitzakia da, noski, baina egia ere bada".

Globalizazioaren kritiko nagusietarik den Naomi Kleinek antzeko argudioekin ulertu ditu Ingalaterrako suak: "Xokaren dotrina. Kaleetan gertatu den gauezko lapurretaren eta egunero eliteek egiten duten lapurretaren arteko lotura" ipini du izenburuan.

Shock Doctrine kontzeptua zabaldu zuen Kleinek, ironiaz alderatu ditu Londreskoak aurretik munduan gertatutako arpilaketekin, Bagdaden, Argentinan eta beste hainbestetan

gertatutakoeekin. Horiekin ezin dela alderatu Ingalaterrakoa? Kleinen ustez, mundu mailako harrapakatzea ari gara ikusten urteotan, ugazaba handiak egun argitan burutzen dute lapurreta erraldoia. Hauek bazuten zerbaiten susmoa: "Uztailean *Wall Street Journal*-ek, inkesta bat aipatuz, plazaratu zuen milioidunen %94 'kaleko bortizkeriaren' beldur zela. Ikusi da ez zeudela erratuak. Londresko istiluak ez dira izan protesta politikoa, garbi dago. Baina gauezko lapurretan aritu direnak ziur daude eliteak egunez ari direla lapurretan. Arpilaketak kutsakorrak dira".

Idea horiek ukatu gabe baina pittin bat matizatuz, Stephen Humphrey eta Yoriko Otomo irakasleek honakoa publikatu dute: "Inauteria hiriburuan: zergatik Ingalaterrako istiluek oroitarazten duten Dionisosen errituetaraino garamatzen historia". Baliteke hain hutsala ez izatea.

Antzinako karnabal giroan jabe goa desagertzen zen egun batzuetarako, edozein lapurreta zen posible, debekurik ez zen. Sinbolikoki bederen, gizartea hankaz gora iraultzen zen, jendea moztarotatu eta bere onetik ateratzen, mozkortuz, gauzak puskatuz; ohitura onak desagertzen ziren, aldi baterako. Giro hori iruditu zaie atzematea ikerlariei istiluetako gazteen artean: dibertsioa, algarak, txikizioak, moztarotzeak, desmasiak, halako talde-estasia.

Antzinako inauteri basak errepi-katu bide dira, noiz eta karnabala bera sistemak integratua zuenean. Zapalduen mendeku laburra. Gero mintzatu da Cameron: orain bekata ordaindu beharko duzue. Fini inauteria... hurrengo txinparta arte. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Ekonomiaren lerroarteak

2

011ko uda honetako oporrek ez dute arindu egunerokoa bilakatu zaigun kezka: krisialdia. Premia bihurtu zaigu ekonomiarekin zer gertatzen ari den jakiteko mina: jakin nahi dugu zer diren arrisku-primak, kalifikazio-agentziak edo finantza-merkatuak, zergatik diren hain erabakigarriak eta nola eragingo duten gure etxeko ekonomietan. Badakigu egoera ekonomikoa kilokolo dugula, baina ez ditugu ezagun arrazoi zehatzak.

Ez dugu ulertzen mehatxuaren zergatia: Zer egin dugu (gaizki) herritarrok –langileok, kontsumitzaileok...– egoera honetara iristeko? Komunikabideek helarazten dizkiguten mezu ilun eta kontrajarriak entzuten ditugu sor eta lor, eta erdi ezkutu-tuan datozkigun abisuak interpretatzen saiatzen gara. Argibideak bilatzen ditugu, baina maiz erantzunik eskuratzeko astirik gabe jotzen gaitu krisiak.

2011ko uda honetan *Ekonomialari Harrituen Manifestua* (*Manifeste d'économistes atterrés*) euskaratzen ibili naiz. Ez da izan itzulpen-lan arrunta: gaiak, krisiak, zuzenean eragiten du (gehienetan txarrerako) pertsona askoren bizimoduan, eta horregatik, testua ulertu eta itzultzeaz gain, edukia interpretatu behar da, eta gori-gorian dagoen errealtate ekonomikoarekin erkatu. Izenburutik hasita: frantsesezko *atterrés* hitza esanahi askotarikoa da, eta bere baitan biltzen ditu laztura, asaldura eta haserre. Baina, nire ustez, ekonomialari frantsesek gehienbat harrimenaz jota idatzi zuten manifestua 2010eko irailean. Harriturik zeuden Europako botere ekonomiko eta politikoei krisialditik irteteko neurri gisara krisialdira bultzatu gintuzten politikak aplikatzen segitzen zutelako. Gutako asko ere harrituta gelditu gara 2011ko uda honetan, finantza-merkatuek sortutako krisialdi



honi aurre egiteko XX. mendeko 80ko hamarkadan krisialdi industrialetik ateratzeko proposatutako neurri berberak aipatzen dizkigutelako: beherakadak soldatan, erraztasunak langileak kanporatzeko, murrizketak gizarte, hezkuntza eta osasun gastuetan...

Manifestuan proposamen horiei aurre egiten dieten ekonomialarien iritziz, berriz, krisialditik irteteko jendearen ongizatea bultzatu beharra dago, krisialditik irteteko, botere ekonomikoek murriztu nahi duten gastu sozial publikoak suspertuko baitu ekonomia, ez jendearen bizi-baldintzak estutzeak. Ekonomialari horiek diote herritarrok hartu behar ditugula ekonomiaren inguruko erabakiak, irtenbideei buruz jendaurrean eztabaidatuta.


Eztabaidatzeko, ordea, gaia zertan den ulertu behar dugu. Manifestuaren helburuetako bat herritarren zalantzak hitzez eta kontzeptuz hornitzea da, ohartu gaiten bestelako irtenbideak badirela. Ego-kia dirudi ideiak: albistegiek lerroartean moztururik eta bestela bezala helarazten dizkiguten hitz eta kontzeptu trinko eta abstraktu horiek gizartea gero eta gehiago estutzen duen sistema ekonomikoak sortuak dira, eta, zientzia ekonomikoaren geriz-

pean, sistema hori sostengatzen dute. Sistemak eragindako desoreken zama pairatu behar izaten dugunok eskubidea dugu, eta beharra, sistemak nola funtzionatzen duen jakiteko, eta sistemaren euskarri diren hitzak ulertzeko. Baina kontziente izan behar dugu krisialdietan ere (eta batez ere krisialdiei esker) mozkinak bereganatzen trebeak diren hitzak eta kontzeptuak direla, eta horregatik direla batzuetan ulertzeko hain zailak. Eta, hitz horiek ulertu edo ez, denok garela nor zerbait esan eta erabakitzeko, denok baitakigu bereizten jokabide zuzenak eta bidezkoak ez diren egoerak. ■

Sistemak eragindako desoreken zama pairatu
behar izaten dugunok eskubidea dugu, eta
beharra, sistemak nola funtzionatzen duen
jakiteko, eta sistemaren euskarri diren hitzak
ulertzeko. Baina kontziente izan behar dugu
krisialdietan ere mozkinak bereganatzen
trebeak diren hitzak eta kontzeptuak
direla, eta horregatik direla hain zailak
ulertzeko batzuetan

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

2



Ekainberri

Ekain berri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Inguru Abentura

Puenting (I. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

4



Une akustikoak

eta bestelako uneak

5 CD opari

www.baga-biga.com

5



AZKEN IRABAZLEAK (2286. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- Unai Muñoa Madariaga (Bilbo)

EKAINBERRI

- Irati Sarasua Arabaolaza (Hernani)
- Edorta Miranda Salbidegoitia (Leioa)
- Mamen Uharte Azpiroz (Leitza)

NAIROBITARRA

- Oihana Goiriena Foruria (Narbariz)
- Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Asier Alvarez de Eulate Mujika (Ordizia)
- Arantxa Garmendia Lasa (Zaldibia)
- Xabier Igoa Eriz (Aramaio)

IRUÑEKO PLANETARIO

- Mikel Albisu Gomez (Beintza-Labaien)
- Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
- Usurbilgo Txistulari Taldea (Usurbil)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
© 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

